

ARANA-GOIRI'TAR SABIN OLERRARI

AITA ONAINDIA
Karmeldarra

Larrea - Amorebieta
(1982)

Bear diran baimenakaz

© Aita Onaindia — Larrea, 1982

Argazkiak: GEU Argitaldariak adeitsu itxiak.

Depósito legal: BI - 922 - 82

Irarkola: IGARRI, S. C. L. — Artes Gráficas

Rafaela de Ybarra, 1, azpian ..

BILBAO - 14

ITZ BI

Begien mende dozu idazti deigarri bat, geldi-geldi irakurtekoa. Ez ezelan be eliz-txorien egazkada biziz, saiaren ego-ukaldi itzal aundikoaz baiño.

Sabiñ'en olerkiak dituzu, maisu jakintsuaren sorpenak. Arek be, ba, musaen ondi-gaiñean intzentsua erre eban. Besterenganatua ibilli zan gauza askotan, eder-lanari ekiteko asti geiegi barik; alan eta guzti, sarri aundiko bultzadak izan zituan ez gitxitan.

Goi-gorriak jota eder-eremuan besteak ez ekusena ikustera eldu zan, ez gero obari ta interesdun zerbaiten billa, guztion aintzarako zanak eraginda baiño. Erdiune ber-berera doaz abandotarraren burutapen, biotz-erason eta birlora dan-danak: euskal erriaren ona, zuzena ta aintza. Urduritasun orrek iruntsiko dautsa olerkariari arimea.

Ertilari genduan Sabin. Gizona ta ertilaria, barriz, estu-estu ei dabiltz. Sabin'ek, giza-sume zanez, jaio zan sukaldean ikasi ta arturiko fede ta ekandu zuzenai ez eutsen egundo muzin egin. Aren oler-lanak onak ditugu beti, Jainkoa ta Aberria duin be duin kantatuz. Gizonak leenen gizon izan bear, eta ondoren artista; gero, jakiña, sorburu garbiak ezin daikegu ur loirik ekarri.

Aren lirikar kopla guztiak barren-barrendik sortuak dira. Olerkia, barruan erne ta eroana, aur-alde baten an-

tzeko dala takean-potean entzuna dogu; labur adierazteko, ernaldi nekeza, luze, lillurazlea. Ez da, egia autor-tu nai da'da, edozer gauza, aizta bat, tresna bat, idazkortz bat, adibidez. Beste zerbait da, muiñetik jagia, gizonaren barne-biziak uzta eder lez emona.

Olantxe moldatu euskuzan Arana'k bere olerkiak, espetxean, illunetan egiñak ainbat, mendi gurenetik zabal ta eder, baiña zori gaiztoko gure erria ikusiaz, biotz-taupadaka biribildutako oler-bitxiak.

Giza-abots oro da, ziurki, zerbaiten ereile. Arana'rena aberri ereile. Aren bertsoak —esan dogu— Jainkoa ta Aberria kantatu eben. Bernanos'ek aitatu zitun iñoiz «li-rikar aotxoak», emakumezkoak beti gauza bardiña abes-ten dabela adierazo nairik. Arana'z berebat esan bearko? Ba leiteke. Ez poesi mimikoi ta geldoak egin zitulako, bere barrua olan ustu ebalako baiño. Biotzean daroagu-na errez adietan emoten. Ak maite bi eroazan, su bi, bere erraietan. Eta orrexek abesten dauskuz eten barik.

Biotzaren intziriak, oi u bizi-garratzak, aren lanak, la-rogetaz urteak joanak dirala be, oraindik gogotan dauka-guzanak. Olerkariaren naia, barriz, nobere bertsoak urtez urte otsegiñak izatea da, ezpairik bage. Eta Arana'k ja-detsia dau gurari ori.

Bai, nok ez ditu gaur be entzuten, euskotar eztarriak oiukatuta, aren olerkiak: «Bizkaitarrak gara», «Mendi-ko negarra», «Azkatasun eguzkia», «Lenago il!», «Agur, Jaun Ama», «Goxeko Ixarra», «Otseña zara», «Ken!», «Euzko-Abendearen Ereserkia» eta gaiñerakoak?

Orretarakoxe idatzi zituan, ain zuzen, kanta daigu-zan; eta kantatuz euskaldun biotzak samur-azo ta zirra-ratu egiezan.

Xede ori bete beizu, irakurle, gure Irakasle jatorra-ren biotz-intziri ta samin-oiuak.

Larrea, 1982-3-24
AITA ONAINDIA

ARANA-GOIRI, OLERKARI

Zati bi izango ditu osotu nai dogun idatzi onek. Lenengo, beraz, *Arana Goiri'ren euskal lana*, ta bigarren, *Arana Goiri'ren olerkien azterketa*.



1883'an Barzelona'ra joan zan Sabin bere amagaz eta bere anai Koldobika'gaz. Orduan asi zan Eskuegoa ta Jakintza ikasten. Orduko argazkia dozu.

I ZATIA

Arana-Goiri'ren euskal lana



1867'an, Sabin bere amaren altzoan, urte biko zalarik. Andik urte bira asiko zan eskolara joaten.

I

BIZI ZEAZTASUNAK

Euskal arloaren arnasa barri bati bidea emon eutsan gizaseme bipil au Abando'n jaio zan, San Bizente eleiz ondoan. Aren gurasoak: Santiago Arana ta Paskuala Goiri. Zortzi seme-alabetatik, Sabin izan zan azkena. 1873' garrenean, bigarren goi-erria gerra sortu zala-ta, Laburdi'ko Getari'ra jo eban Sabin'ek bere ama ta anai bigaz, aita aurretik be Ingalaterra aldetik zala. Baiona'n egin zituan 1873-74 arteko ikasketak; 1875-76 artekoa, barriz, Donibane Lohitzun'en, azken azterketak Ondarribi'n osotuz. Amaika urtedun Bilboratu ta 1876'garren arteko ikastaroa Orduña'ko jesuitetan asten dau; eta emen, 1881'an azkenengo ikastaroa amaitzen egolarik, oso txarto gertatu zan osasunez, eta urrenengo urte bietan ez eban ezertxo be ikasi, bere sorterrria maitatzen eta umetatik ez ekian euskera ikasten jardun baiño. Amazazpi arteko zala aita ta anai bat il yakozan.

Ondoren, 1883'an, bere ama ta anai Koldobika'rekin, Barzelona'ra joan zan eta antxe ikasi zituan Filosofia, Lege-jakintza ta Elertia; baita bitartetan euskera be Arturo Kanpion'ek atera barri eban «Gramática Bascon-

gada»-rekin, len Van Eys olandarraren Iztegi ta Gramatikarekin egin eban lez. Berak be, orrez gain, 1885'an, naiz-ta geroago argitara emona izan, «Gramática Elemental del Euskera Bizkaino», 200 orrialdekoa, osotu eban. Urrengo urteetan, il arteraiñoako guztian, lan izugarria egin euskun lumaz ta mingaiñez.

Bein, 1893'an, Begoña ondoko Larrazabal baserrian adierazo zituan garbi ta argi asmotan erabiltzan elburu, xede ta lanak. Orreik aurrera eroateko «Bizkaitarra» eritxon aldizkaria sortu eban: il-zori larrian ekusan euskal kontzientzia itxartu nai eban izparringi onen bitartez; bera zan sortzaille ta zuzendari, ta bertoko lanakaitik sarri izan zan salatua, auzipetua ta giltzapetua. 1897'an «Baserritarra» sortu eban, baiña au be, denpora gitxi barru, goitik ixil-azia izan zan.

Jaungoikoa ta Lagi-Zarra zan aren ikurritza; onekin erein eban bere politika azia, lur naiko girotuan erein be, ernerera bikaiña bai ekarren. 1894'an edegi zan *Euskeldun Batzokija*, geroztik sarri itxi ta edegi eutsoena. Onako baten Sabino ta beste abertzale mordo bat espetxean jarri ebezan eta Arana'k orduan ondu euskun, Larrinaga'n egoala, «Lenago il!» deritxon olerkia. 1899'an «El Correo Vasco» egunerokoa sortu eban; eta auxa izan zan lenengo abertzale egunerokoa, ta 103 zenbakiraiño eldu zan. Aranak berak idazten eban ia geiena, ta «Bizkaitarra» ta «Baserritarra» baizen zirtolari etorren. Urte oneitan samin artean izan zituan pozaldiak be: 4.500 bizkaitarrek bere alde emon eben autarkiagaitik Bizkai'ko Aldundegiko aurkietan jarri al izan zan; eta bertako gauza ta goraberetan zuzen ez ebiltzanak polito zigor-azo ebazan.

Urte oneitan, lan eta lan ekiola, osagilleak aginduta, Sukarrieta'ko baserri baten bizi izan zan. Berton ezkondu zan 1899'an Atxikallende Nikolasa'gaz. Ez eben se-

me-alabarik izan. 1902'an Ipar-Amerika'k Kuba'ri emon eutsan askatasunagaitik Arana'k urrutidatzi batez, zorionak bialdu eutsazan ango lendakariari. Au zala-ta be espetxeratu eben, eta orduantxe Larrinaga'n aurkitzen zala idatzi eban «Abertzale ezkontuba espetxian» deritxon olerki sentikorra.

Ezin etsi inolaz be lanean. 1901'an «Euzkadi» iru-illabeterokoa ta «La Patria» asterokoa sortu zituan. Argitalpen bi oneik, azkenengoak batez be, atera eben zarata ta iskanbillik, eta 1903'ko Bilbao'ko Udaletxean ziñegotzi ziran abertzale guztiak bota ebezan andik, baita abertzale usaiñeko argitalpen guztiak debekatu be. Ainbeste neke-lorrez abandotarraren osasuna aulduaz joian oso: erriaren alde emon eban eukan guztia. Sukarrieta'n il zan atzenez, 1903-11-25'an; gazte oindiño, 38 urte besterik ez zituan eta. Bere gorputza, illotzik, an geratu zan Kantauri ertzean, lurperatua; aren gogoa, barriz, berak ainbat goratu eban Jainkoak artu eban bere zorion betierekoan.



«Euskeldun Batzokija»-ko mutikoa, Adin orrreita-
koengan jarri dau bear bada Arana'k bere itxa-
ropen guria.

II

EUSKAL LANA

Naimen sendokoa zan Arana-Goiri, ta etzan iñoiz be kikildu bizi-bidean jagi yakozan zoztor eta eragozpenen aurrean. Gogoko eban azterketa lana ta orretan jarduna dogu aspertu barik: asaben izkuntza jaso ta bitxitu, ona aren elburuetatik bat. Zabar eta murriztua ekusan eus-
kera; gure euskalkien matasa be bai ikusten eban. Zer egin? Aurrera ziur asko! Lenengotan bizkaierari buruz osotu ebazan lanik geienak: itxorkun eta etimolójiaz, gramatika ta eskola-liburuz, eleder ta musikaz, ardura-
tu yakun. Euskeraz ta euskeratzaz beti be.

Asko be asko idatzi eban Arana'k bere bizitzaldi la-
burrean. Irakur egizu aren «Obras Completas» lanetatik zerbait, eta zeuk ikusiko dozu ederto asko. Ona erde-
razko lan batzuk: «Etimologías euskéricas», «Pliegos histórico-políticos», «Bizcaya por su independencia», «Tratado etimológico de los apellidos euskéricos», «El Partido Carlista y los Fueros Vasco-nabarro», «Biz-
kaitarra», «Baserritarra», «El Correo vasco», «Euzka-
di», «La Patria», «Patria» aldizkariak eta abar.

Egia esan, Arana'k erderaz osotu euskuzan bere lanik geienak. Baiña berak diñosku bost aldiz gaitz egiten yakola erderaz jardun bearra, ta orretan ba'ziarduan be euzkotarrak ulertu egioen egiten ebala, ez bere gogoz. Gizona, alan be, ez da itzez neurtzen, egitez baiño. Eta Sabiñ'ek esan dogu, ez ekian euskera ikasi egin eban, eta euskera utsean emon euskuzan: «Egutegi bizkaitarra», sakelerakoa: «Umien lenengo aizkidia», «Lenengo Egutegi Bizkaitarra», ormarakoa; berton datoz euskal izenak be, geroago «Ixendegi Euzkotarra» izenez, a ilda gero, argitara ekarria; aren «Olerkijak» eta «Libe», azkenez, euskeraz osotu ziran.

Norbaitek bear bada esango dau: «Nolako euskeran idazten eban?» Eztau edozelakoa, ez. Ona baserritik urira doazan neskatiillak dabezan arriskuai buruz, gurasoi diñotsena: «Bertoko baserrijetako neskatiillak zur ta ederrenak —idazten dau—, euren gurasuak Bilbao'ra, otseñak ixateko, bidaldu daroyez. Guraso orrek eztakije nora euron alabaok bidaltzen dabezan. Dirutan datozanak, diruban bertan aurkituten dabe euren galbidia, euren galtzia. Beste batzuk usuaren zuritasunez jantzita ta dirubari larregi jaramon ezik datoz; baiña Bilbaon miru ta sayarre asko dagoz, ta usotxuok eztaroyez euron arerijuak ezautu, euren erpiak oratuta dagozan artian. Orduban berandu da. Eta ekixube, euzkeldun gurasuak, extrirala gizonak sayarre gaiztoenak, emakumiak baño: onek, eitz edo kaza-egiteko, ezartzen doyazan aitz nago-sijak dira Eztaziñoiak eta Merkauak. Euzkeldun gurasuak: ezegixuz bidaldu zeure alabaok Bilbao'ra. Obia da erdeldun otseñez beterik uri au ikustia».

Arana'k, berak ikasi ta idatzi ez-ezik, eragille trebe lez, bultzada ederra emon eutsan euskerari. Aren irrintziari esker, ainbat euskalari ta euskal idazle jagi ziran or-emendik, gartsu, bizkor eta kezkar. Il-zorian idoro

eban Arana'k bere izkera munduratu zanean, eta kontu-
ratu-ala, ilte ori uxatzeko alegiñak alegin egiten saiatu
zan. Erriaganako maitasunak, abertzaletasunak gaizkatu-
ko eban, aterako eban gure izkuntza bere eriotz-zoritik.
Beraz, onela iñoan: «Euskera ilten ba'da, abertzalerik ez
dalako izango da». Il ez zedin, geure nortasuna zaintzen
alegindu gaitezkan, beste iñok baiño lan izugarriagoa egin
eban. Guk uste baiño geiago zor dautsogu, ba, Arana'ri;
a izan ezpalitz, ziur asko, ainbat gauza ta balio aintza-
garri, euskaldunonak, galduak genduzan onezkero; eus-
kera bera be, ak zuzpertutako erriak eta idazleak eutsi
ta jaso ezpa-lebe, lurperatua bide genduan onezkero.

* * *

Beioa emen olerkiaren mamiña, irakurri ala, obeto
ulertzeko be, J. M. Leizaola'k bere olerkiari buruzko la-
netan diñoskun au. «Olerkiak duan lendabiziko berezi-
tasuna, esan-naietan dago. Olerkiak ez du itzaren esanai
bera, bakarrik nai izaten, erantsi lezayoken beste esanai
bat agertarazi nai izaten du, eta beste esanai onen bidez
edertasunaren biotz-ukitzea suspertu.

«Orretarako itz-izun edo ingurapenak (metaforak),
ber-esateak (repeticiones), maillako-itzak (gradaciones) ta
aurkako esanak (contrastes) izaten dira bide oituenak.
Zenbat eta bide oyek maiz ta egokiago erabilli ainbat
olerkia ederrago, mamiari dagokionengatik.

«Euskerak bide oyetakoen arteko esanai asko ba ditu.
Aitoren semea jatorri goitueneko gizon bat izendatzea
itzizun edo metafora bat esatea da: *berbera* ber-esate bai
da; *argi ta garbi* maillako-itz bat. Abek, beti aotan dau-
den esanak, ordea, olerki batean ez lukete bereziak izan-
go, ta onen edertasunaren bide ere ez lirake izango.

«Berriak eta egokiak bear dira. Berriak izatea ez du iñoiz entzun ez dirala esan nai; era ontara erabilli ez dirala baño. Egokiak, ez luzegiak (abek zertan ari geran aztu eragiten digute, ta nastu edertu bearrean), ezta berrez ondo ez aitzeko bezelakoak (latzak, errez aitzen ez diranak, ari geran gauzarekin zer ikusi ez dutenak) izatea da.

«Ona eredutzat euskal abesti bikañenetako bat:

*Txoriñuak kayolan tristerik du kantatzen;
dualarikan zer jan, zer edan,
kanpoa desiratzen. Zeren?, zeren?
Libertatia ain eder den.*

«Ontan «zeren? zeren?» ber-esatea ezin egokiago dezute; aurkako esan egoki batek tristeziaren sortuera begi aurretik kendu izan digu-ta. Galderari indarra ematen dio ber-esateak. Aurkako esana, berriz, «dualarikan zer jan, zer dan» da. Askatasun zelatasunak lotua dagonari sortzen dion miña gain-gañean agertarazteko, zein egokiagoa? Askatasuna nai dekala? Ez al dek, bada, zer janik zer edanik? Itz oyek, margolariak arpegi aldean jartzen duten margo illunaren lekua dute». (*Obras Completas*, Donostia, 1981, I alea, 69 orr.).

III

«OLERKIJAK» LIBURUA

Olerki mordoa itxi euskun Arana'k, bere biotz saminduari askatasun pizkat emonaz egindakoak. Erri-askatzaille askok jo dau bide orretatik: J. P. Rizal'ek Pilipinas'en, eta Mao-Tse-tun'ek oraintsu Txina'n. Erria biztuteko egokia izan olerkia. Ba-ekian, gaiñera, olerkia kantuari lotua ebillela, ta ondu ebazan geienak erri kantu barruan moldatu zituan, ots, erriak abesteko eran biribildu euskuzan. Zer gai erabilli eban? Aberria, ikurpe onekin: «Jaungoikua eta Lagi-Zarra». Ezta aren poesia irudimenaren saio uts, egi batek aragitutako olerkia baiño.

Arana ilda gero, aren paper artean agertu ziran banaka batzuk izan ezik, aitatu ditugun agerkarietan datoz geienak. Eleizalde'tar Koldobika'k, Bergara'ko seme argiak arduraz batu ta txorta eder bat argitaratu eban aren poesi-lanakaz, 1918'an; izenburu au emon eutsan bilduma orri: «Olerkijak». Itzaurrean onan diñosku biltzailleak: «Itz barri gutxi esan negiskezu, irakurle on ori, Arana-Goiri'tar Sabin'en Olerkietzaz, Euzkel irakurtzale oroen edo beintzat geyenen artean arras ezagunak

dira, banaka an-emen sarri argitaldu izan diralako. Baña gaur, idazti baten bilduta eskeintzen yatzuz, ta txukundo argitalduta gero, Sabin aundiaren olerkiok. Beste zor askoren artean, gure Sabin maiteari auxe be geneuntson, eta ordain-aldia oraintxe eldu yako: zelako atsegin ta maitasunez opaltzen dautsogun oraingo idazti au!»

Liburu bati, irakurtean, atsegiña artzeko, nok eta noiz idatzia dan jakitea, bearrezko dala deritxat. Abertzale batek eta eusko-abertzaletasunaren sorreran bertan egiñak dituzu olerkiok. Ederki diño, beraz, Eleizalde'k: «Abertzale ba-zara, irakurle ori, idazti au txalo ta pozoyuka darkezu, noski. Abegirik gurenena dagiskeozu. Agi-agian, begietatik negarra zintzilik eta biotza samurtasunez beteta dozuzala, españetara urbildu ta mun-egin go dautsozu. Irakasle aundiaren gogo zintsoaren emoitzik ederrenari bezela. Bai, noski!»

Alan be, abertzaleentzat bakarrik egiñak ete dira olerkiok? Ez; eder-zale ba'zara be, ba-dozu emen ederrik. Eleizalde'k barriro be: «Abertzalea izan ezarren, olerti-zalea ba-zara, daskeintzugun idazti au abetalduko dozu; olerkiok berez ederrak, goitiarrak eta ziñez irakurgarriak diralako. Euzkelerrian, oraindiño, aunelako gutxi sortu da. Arrese ta Beitia'k olerki geyako egin ebazan, ez baña obeak; gozoagoak, samurragoak agian; ez baña kementsuagoak, ezta gizonezkoagoak: *Lenago il* irakurzu, arren:

Ze ikusten dabe neure begijok?...

Au danau dakust galduta:

Beresi, baso, mura ta mendi,

Uri, baserri ta dana!...

Askuntz au kemenez eta suz beterikoa dala autor-tuko dozu; baña kemena ta sua azkeneraño geitzen ta geyagotzen doazala be laster dakuskezu».

Iru sailletan banandu euskuzan Eleizalde'k, bilduma egiterakoan, Arana-Goiri'ren olerkiak. Onan: I. Bost *ereserki*: 1) «Oñatz-Loyola eta Likona'tar Iñaki, Bizkaya'ren Zaindari deunari Bizkaitarrak», 1895'an egiña; 2) «Oñatz-Loyola eta Likona'tar Iñaki, Gipuzkoa'ren Zaindari deunari Gipuzkoarrak»; 3) «Agur, Jaunan Ama» (*Ave, maris stella* euskeraz); 4) «Jai andi onetan» (*Sacris solemnibus* euskeraz), ta 5) «Euzko-Abendaren Ereserkija». II. Zortzi *illots*: 1) «Gaurik baltzena»; 2) «Ene Ama!»; 3) «Oraingo Bizkai-bizkarrak», 1896'an egiña; 4) «Mendiko negarra», 1896'an egiña; 5) «Aberztale baten negarra»; 6) «Otseña zara»; 7) «Lenago il!», Bilbao'ko espetxean 1895'an ondua; 8) «Ene Aberrija!» III. Amazortzi *abesti*: 1) «Begoña'ko Ixar zerutarrari», 1895'an egiña; 2) «Ama Goikuari»; 3) «Andera Miren garbijari»; 4) «Josu'ren Bijotzari Abestija»; 5) «Gabona»; 6) «Goxeko Ixarra»; 7) «Itxarkundia», goiz-abetesia; 8) «Ederra zara»; 9) «Ai, Mikel»; 10) «Bizkaitarrak gara!»; 11) «Ken!»; 12) «Ai. Kepandon!»; 13) «Urkiola'ko bidian»; 14) «Boga, boga»; 15) «Abertzale ez-konduba espetxian»; 16) «Ziñesmena!»; 17) «Astarloa'tar Paul-Kepa'ri», ta 18) «Didar bat aditu da».

Eder yakozan Eleizalde'ri Arana'ren olerkiak. Onela diño: «Goititar dabil beti, arranoa egaz bezela, olerkari bikain aunen oldozkuna. Lurreko zirtzilkerietan ez dozu iñoiz idoroko. Bere askua (kemen) orrelakoxea izan zan, eta asku ori egikunetan igarri bear, nai ala ez». Izan be, mamiñera jo ezker, guztiz sentikorrak ditu batzuk, illetotsetatik «Mendiko negarra» bereziki. Eta ereserkietatik «Euzko-Abendarena» ba'leiteke, izki ta doinu, munduko ederrenetarikoa izatea.

Azalari gagokiozala, ez eban rimarik gura; alan be, ondu zituanak kantetako ziranez gero, azken bardin-amaitze edo rimaz osotu euskuzan geienak. Olerkiak neurtze-

ko ta, jarri euskuzan legeak darabilguz gaurko olerkariok be. Labur: Arana'ren olerkia giarra dozu, indar aundikoa, biotz-odoltsuz gaiñezka egiña: aldiz diardu latz, barru loak artuak itxartu nairik, eta aldiz, samur, sentikor oso, egarbera ebiltzan euskaldun urduriak atzemon naita.

* * *

«Esanayak olerkiaren mamia diran bezela —diñosku barriro be J. M. Leizaola'k—, itz-otsak azal ta ezurria dira. Ta esanayetan edertasunaren biotz-ukitzea billatzen dan bezela, itz-otsetan ere ez dira zuzenenak nai izaten, ederrenak baño. Zein aukeratuko dan ez du argi-nayak agintzen edertasun-nayak baño.

«Emendik, olerkiak neurtuak izatea; emendik, olerkien azkenenko itzak ots antz-berdin edo berdintsukoak izatea. Euskerak abetan jartzen olerkien azal ta ezurren berezitasuna; beste izkuntzak beste berezitasunak nai izaten dituzte». (*Ibidem*, 72 orr.).



IV

OLER-SENA

Esanak esan, or dago Arana'k egiña ainbat arlotan. Eragille benetakoa, egiaz. Euskal ezpiritu barri bat sortu eban euskalduntasunari berebiziko kemena ezartzeko. Adimen zolikoa zan, eta politikan ez-ezik, euskal eremuan lan itzala osotu euskun, esan dogunez. Aren eritxiak, artezak ziran; baita gaur-egunerako be. Izango ditu bere akatsak, baiña ak erriari ta euskerari emondako bestelako indarra, onerako izan da beti be. Saiatu zan arloa ez eban erren itxi.

Ezta olerki-arloa be. Esan dogu: olerkari bikaiña genduan Arana. Biotz sentikorra ta adimen zolia bear dira erti-lanerako. Zorrotzik zorrotzena zan adimenez, eta biotz-ondo txit bizia, erriaren alderako atan be. Abertzale bero zalako, olerkari bikain dogula, diñosku Eleizalde'k. Ots, erri-berotasunak arrotua, goizale dabilkio oldozkuna.

Oler-sena ez da edonoren doai; artista ez da edozein, poesi zorakor bat ez dau edozeiniek idazten. Doai berezia bear da zerbait egoki moldatzeko. Ba-ditugu olerkari bakar-zaleak, baita gizarte zaleak be: biok dagiez,

egiazko poeta ba'dira, lan aintzagarriak. Bakar-zale dana bere barruko mundu zoragarrian murgilduta bizi da, lan dagi; gizarteagaz naste bizi danak, oster, gizarteko kezka ta egon-eziñak batu ta dardarazten dauskuz. Bitzuok ditugu, geien bat, iraultzaille.

Bere egikera dau ertilariak, bere-berea nunbait, bere ertikera, bere estetika. Ertikera barriz adierezpena da, barruko zerbait iragarten dauskuna. Griña da adierazpena, au da, barne-lera, teknikak lagunduta. Ortik bada, egikera berezi batean, barrua leraz, gartsu ta gogartuz azaltzen dauskuna da olerkaria. Gaur bide askotatik da-bilkiguz olerkariak; oneik illunak dira, areik argiak. Alan be, poeta ona danak argi ta errez adierazo oi ditu bere oldozkunak.

Gaurko olerkari askok lez, Arana'k gizarte bideak zear jo eban. Lo egoan euskaldunaren arazoetan murgildu yakun barru-barruraino, eta egoera orrek bere-bere ebazan istillu ta nekeak abestu euskazun bertso bizietan. Gaur iraultza garaian gagozan lez, orduan lo-zorro euskalduna; ta loaren mende dagoana esnatu, benetan esnatu nai izan ezker, txibita erabilli bear da. Orixe dagi Arana'k, zartada ederrak emon, beñola gure asabak areioa ur egoala somatzean mendi tontorretan jotzen eben adarraren pareko: deia zan, burrukarako, erria etsaiez esiturik egoan eta. Bera doa aurrelari, ikurrin eroale, burruka onetan. Olerkariak, izan be, leen eta orain, beti erriaren kezka ta larrialdiak, erriaren poz eta aurrerape-nak abestu bear ditu.

Arana-Goiri'k ba-eban, bere idatziak lekuko, edersena. Baita oler-sena be. Gaitasun orrek eraginda, ederra, nai izadian eta nai nobere barnean, benetako poetak egin oi dauanez, somatu, sortu ta adierazoko dausku. Eguzkiak bere izpiak bialdu oi ditu mundua lotatik itxartu dedin; olerkariak bere poema ederrez, gartsuz itxar-

tuko dau euskaldun loak artua. Iraultza garaia da, ta ori abestuko dau aurrenik, eta ondoren txorta bat egiñik, maitasuna, fedea, izadia...

* * *


«Neurria bitara artzen da euskal olerkietan —diño J. M. Leizaola'k—: olerki txorta, ahapaldia, bakoitza aurreko ta urrengoarekin berdiña izanik, ta neurtitz bakoitzak txortaren lekuan dagokion neurrikoa izanik.

«Ahapaldietan neurtitzak zenbatzen dira, ta bikoak edo irukoak edo lauhoak... edo *zortzikoak* izendatzen ditugu.

«Neurtitzetan izkiñak (itzak dituzten otsak) zenbatzen dira. Adibidez, ona Oxobi'ren biko bat: (*Alegiak*, «Bi garraitona» olerkiaren amayeran).

*«Ba-no-a = Us-ta-ri-tze-rat,
Txo-po-lo-ren = la-gun-tze-rat».*

Bi neurtitzak zortzina izkin edo itz-ots dute, ta biak emayeran ots berdiñak, *tzerat*. Ta ots-berdin onek aurrekoekin zer ikusirik ez dulako, ta olerkia or bukatzen dalako, bi neurtitz oyek ahapaldi bat egiten dute, biko bat» (*Ibidem*, 72 orr.).



Zin egiteko bizkaitar Ikurriña. Arana-Goi-
ri'tar anaiak egindako marrazkia.

V

NEURKERA-LEGEAK

Itz neurtu batzuk antolatuz bakarrik ez euskun Arana'k bere poesi-zaletasuna agerterazi; areik biribiltzeko legiak eta arauak be eskeiñi euskuzan, eta ez lokak gero, zentzunez oiñarrituak baiño. Bere apaiña dau euskal poesiak, beste izkuntzetakoak lez; apain au, ederkera au lau zerok moldatzen dabe batez be: bertsoaren azentu ta *igikerak* (ritmuak), *neurriak*, erdiko *etenak* eta *azken-amaitze* bardiñak, edo rimak. Olerti-lan bat bertsoz zetan idatzirik egon ez arren, orrela jokatu oi dogu geienetan; eta bertsoa aldez aldezko lerro bat dogu, ritmuaren makilpean sartua; lerro onei, asko diranean, aapaldia deritxegu.

Azken-amaitzeari buruz ez eban Arana'k ezer idatzi, naiz-ta zerbait esateko asmotan ibilli. Onela berak: «Gai orretzaz jarduteko ba-dot asmoa, abagunea dodanean, bai bertsolariak eta bai olerkariak onetan egin oi dabezan utsak, andi-andiak dirata. Oraingoz auxe diñot bakar-bakarrik: euzkeraz erabilli oi dan azken-amaitzea (rima) guztiz mugatua dala; izkia ezarten yakon mugikeak bes-

te zerbait eskatu ezik, silaba bakardun oskidetzat besterik ez dogu; silaba guztiak doiñu indar bardiña dabe ta bertsoak, berenez, gramatikaz bestelakoa dan azken silaban ots bardiña egitea, asko dau. Ontaz, bertso azkea (zuria) amaikidetan osoa naiz oso-eza dala esan dagikegu euzkerari dagokiona; alan be, bertsogille batek be erabillita ez dot ikusi oindiño».

Euskal bertsoa, beraz, zenbat silaba ainbat pikukoa dogu; naiz-ta gurean be iñoiz olako zerbait sartu gurata ibilli, guk ez dogu gerkarrak eta latindarrak lez oin-birtartez silabak neurtzen; bi onein izkuntzak amatzat daukezan erromantzeak be, geienik beintzat, silabaen bitartez egin daroe gaur neurkera. Gure euskerak, egia esan, orreik baiño zarrago izanik, euki eban nunbait bere neurkera berezia, ta saia bear giñake berau billatzen. Or ditugu, ortarako, zeinbat gura atsotitz —beñolako bertsolarien lana—, kopla zar eta gaiñerakoak, olako zerbaiten bidez izan ezik, ezin neurtu daitekezanak.

Silaba auzi onetan, orraitino, ba-doguz euskeran, edozein izkuntzatan lez, silaba bi bat bezela oguzi oi ditugun kasuak. Gogoz artzekoak dira ontan ats-bikiak; oneik, bada, bokal bi izanda be, silaba bat baiño ez dabe burutzen. Euskeraz sei dira aots-bikiak (diptongoak): *ai, au, ei, eu, oi* ta *ui*: Ez dago besterik; ezta irukoitzik be. Bertsolariak iñoiz erabilli daroe *oa*, baiña euskal be-larriak eztau ondo artzen. Onetan be, izkuntza batetik bestera aldea izan.

Zeatz-zabal ari da Arana gai ontaz «La fonética en el metro vasco» deritxan lanean. Ontatik, bertsolariak eta olerkariak dabezan *eskubideak* aitatu soil-soilki. *Alkartzapena* ta *zatipena*, ots, sineresis eta dieresis ez ditu ontzat artzen abandotarrak; bai, oster, *ikolpena* edo sinalefa. Eskubide ontaz baliaturik, bokal biren ezkontza dagigu, au da, itz baten azkena ta urrengoaren lenena,

itz jarraiko amaia ta asiera, buztartu egiten ditugu. Adibidez: semea *ta ama* bi *aa'*kin bat dagigu. Baita biki mor-doak diranean be: *gau uzua*, ta abar. Ona lau sail ikol-pena egin dagikegunak: *a-a*, *e-e*, *o-o*, *u-u* ta *i-i*; bigarren: *au-u*, *eu-u*, *ai-i*, *ei-i* *oi-i* ta *ui-i*; irugarren: *a-au*, *a-ai*, *e-eu*, *e-ei*, *o-oi* ta *u-ui*; laugarren: *a-u*, *e-u*, *a-i*, *e-i*, *o-i* ta *u-i*.

Euskal bertsoetan beti egin bear ete sinalefa? Arana'ren eritxiz, bai. Ak beiñik-bein uts bezela jotzen dau bear danean ez egitea; bardin, bear ez dan lekuan egitea be. Ak onetan zeatz-zeatz jokatu eban, egundo be pot egiteke. Gaur-egunez askatasun geiago opa dogu, ta ez dogu nai elertian be gisa ortako arau estuegirik. Atxe sartzen danean, alan be, kontu pizkat izan bear genduke, izki onek diptonguak bereizi oi ditu-ta. Esate bate-rako: *ahapaldi* idazten ba'dogu, lau silaba ditu, ta aapaldi jarten ba'dogu, orduan iru bakarrik, *aa* biak ikoldurik.

Abandotarrak aintzat artu zituan beste lau eskubideok be: l'goa: Itz bat, bakarka artuta, autuan moztu ba'dagigu, bertsoan be bardintsu: *euzki* erabilli gengike *eguzki* orde; 2'garren: itz bat luzatu oi ba'dogu, luzatu: *garean*, *garan* orde; 3'garren: ango ta emengo idazkerak erabilli, ta 4'garren: aditzaren eta onen laguntzaillearen arteko laburpenak egin; adibidez: *emongotzut*, *emongo dautzut*'en orde.

roenak. Arek ez, arek ondo menderatu eban, eta luzaro bizi izan balitz, obeto menderatuko eban oraindik.

Emen dozu, irakurle, «Au da aukerea!» izenpuruz, beste askoren artean, emon euskun lantxoak:

«Urreratuten bai dira *kontzekaliak* aututeko egunak edo aukundiak. Orrillan ixango dira.

Bai dakigu edonungo errija igitu ta txirrindauko dala diruba, munduko jaun inpernutar ori.

Gaiztuaren esku okerra ezta zikotza, damon diruko ostian zizku edo dirontzi daukana baño andijaguen bat ikututen badau.

Baña zer esango dogu dirala bizkaitar eroskarriak? ¿Bai dakije, eurok saltzen diranian, euron asabaen odola ta Bizkai gaxo guzti au bere, saltzen ditubela? ¿Aztu bai dabe, euron asabeak Bizkai au sortu ebela euren odola jarijonik españarra-kalteko gudaetan? ¿Eztakuse zelan geure Bizkai ederra dagon maketo ta maketozaliak birrin-du ta eratzita?

Motz edo maketuak sartu yakuz Bizkaya'n, jarri yakoz bere sukaldian eta bere semiei etxejaundu yakuez berton. Bizkaitarren batzuk euren aizkidetu ta anaitu dira, mai batantxe alkartuta ta España'en otseinduta.

Ara nortzuk diran Bizkayaren arerijuak: maketuak eta euron aizkidiak, edo maketozaliak.

Eurena da gure Errija; eurenak, geure etxiak; eurenak, geure errañak; eurenak, geure bixitzak; eurenak, geure seme-alabak eskola edo ikastegijetan eta ezkontzetan; eurena, geure zorija; eurena, geure ixangua; eurenak, batez, geu ta geuria... Eta gu, lotan diraugu, iñoz itxartu barik!

Siñiskorregiak dira bizkaitarrak. Esaten badeutse edonok eltzen yakuela euretara euri on egiteko, laster ta urren siñisten deitsae.

Baña au ezta txarrena. Gero, eurek autu ditubenak, igoten bai dira agindegijetara... an dabiltz urte batzuketan... an ikusten ditube... baña ¿zer egiñik? Bizkaya' alde ezebez; bai asko Bizkaya'kalte. Alderdi motzaille guztijak igaro dira erri-agindegijetatik... onik ezebez egiteko, bai gaiztorik asko. Bizkaitarrak, ostantzian, au ikusi ezker bere, itxututa dirabe... Eta geure Bizkaya motz-motzatuten da olan.

Ezta au berez olazeikorrena.

Noredonok urten bada bizkaitarrei esatera, aztu dabela nunguak diran, eztirala euren asabaen seme zintxuak, ikasi biar dabela nortzuketarik datozen, nortzuk diran eurok, nor euren Erri Ama dan, nortzuk onen arerijuak diran... ¿zenbat dira, gortuta eztiranak agertzen? ¿Zenbat itxartzen diran? ¿Zenbatek dantzubez ta dakasez itz on orrek?


Gitxi-gitxik.

Olantxe doya aurrerantz, edo obeto esateko, atzerantz beti, geure Bizkai gaiztetsija: motzatuta, españartuta.

Bizkaitartuko ete da nozedonoz!

¡Aukera madarikatuba!

(*Bizkaitarra* aldizkarian, III urtea,
1985'ko opaillaren 31'an).



Auxe dogu Arana'k ogei urtetan sartu zala egiñiko lanik ederrena. Van Eys'en liburuetan eta A. Kanpion'en Gramatica'n aurkitu dau ortarako naikoa gai. Barriztari agertzen jaku lenengotik.

II ZATIA

Arana-Goiri'ren olerkien azterketa

OLERKIEN SAILKATZEA

Esan daigun oster a be: euskalduntasuna osorik gaizkatu naita ibilli yakun Arana-Goiri; bere bizi-kemenik gartsuenak eta izate-arnasik beroenak orretantxe irazi zituan, Jainkoari ta Aberriari zan eta eukan guztia eskiniatz.

Euskera zan arentzat erriaren arima; orixegaitik, egi zabal orrekin oartzean, umetan ez ekian elea be ikasten saiatu zan, naimen sendoz saiatu be: euskera barik ezer ez gara-ta, arek sarri esan oi ebanez. Gisa orretan mintzatu yakuz, geroago, beste eundaka abertzale zintzo: gure nortasuna euskeran daukagu. Onela Lizardi'k: «Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gure bereizalderik (*becho diferencial*'ik) nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euskera-gabetzeak arrotzu».

Arana'ren euskal-gar bizia agirian jarteko, emen ditugu aren olerkiak batez be. Aren argitalpenetan irakurri daikeguz osotu zituan itz-lauzko lantxo batzuk; baiña oraingoz, areik saiets itxirik, aren neurtitzak aztertuko doguz, naiz-ta azal samarretik liburuxka au erriarentzat gozagarri izan dedin.

Berein bide artu daikeguz arterketa egitean, olerki-sailkatze arloan diñot. Eleizalde'tar Koldobika'k gai edo muetetan berezi zituan Arana'ren oler-lanak, au da, *Ere-serkijak*, *Illotsak* eta *Abestijak*, gorago esan dogunez. «Sabindiar-Batza'k, oster a, *Obras Completas de Arana-Goiri'tar Sabin* (Buenos Aires, 1965, 2478 orr.) argitara

emoterakoan, aldiz-jarraizko edo kronoloji arauz, au da, idatzi-alako sailketa eratu eban, onela idatzirik: «Arana-Goiri'k idatziriko olerkijak txorta baten batuko doguz emen. Batzuk, bere bixitzan argitaldunak ixan ziran, bere izparringietan. Beste batzuk, bera ilda gero, abertzaliak argitaldu ebezan Jel-izparringietan. Eleizalde'tar Koldobika'k Arana-Goiri'ren olerki gustijak batu ebazan eta argitaldu, geronek goian jarri dogun irakur- burubaz beragaz. Baña argitaldu-aldija (orden cronológico) ez eban ziatz-ziatz jarraitu. Gayez (por orden de materias) zeindu ebazan: ereserkijak, eresijak eta abestijak... Gustiz 28 olerki, Eleizalde'k muetatu ebazanak. Baña berak batu-rikoen artian, itxi ebazan muetatu barik, eta onexek dira: I. Deun-Andoni'ren erantzukintzea. II. Ziñesmena. III. Didar bat aditu da. IV. Astarloa'tar Paul Kepa'ri. Eta ganera, bat itxi eban Eleizalde'k batu barik, eta au da Arana-Goiri'k argitaldu eban lenengua: «Agur, Bizkaya'ri».

Guk be, emen, bigarren sailketa oni loturik azteruko doguz aren neurtitzak, beti be, labatik taloari lez, idatzi-alakoari ohea bai deritxogu.

AGUR BIZKAYA'RI

Eleizalde'k osoturiko poema-txortan ez datorrela be, auxe dogu Arana'k argitara ekarritako lenengoa. Onela dirakurgu «Obras Completas»-en: «Arana-Goiri'k olerki au idatzi eman Mentzaka abestzoli (tenor) ospetsubak abestuteko, ta beronek abestuko eban Bilbao'ko «Teatro Arriaga»'n 1894'neko jorralleko 18'garren egunian. Mentzaka abestzolia Arana-Goiri'ren antziñeko aizkidia zan eta Bilbao'ko ta Gazteiz'ko antzokijetan abestu eban, gustiz txalotuba ixanik». Beraz, beioa emen lenengo. Lau aapaldi daukaz, iru lau bertsodun eta seidun bategaz. Onela:

*Agur, Bizkai ederra,
neure Erri maitia:
zugandik nik biar dot
urriñera juan.*

Itxura danez mendigoizale zan Mentxaka, mendi ta ibarrez aspertu barik ebillena. Bigarren aapaldiak onan:

*Bijar enaz igongo
zeure mendi-gora,
enaz ibilliko bez
ibar politetan.*

Ama deitzen dautso bere lurrari, Bizkaia'ri, berton
erne ta jaioa da-ta. Ama au, alan be, bezauta, azpiratua
dago, etsaien atzamar artean larri. Ta ez dau orrela ikusi
gura.

*Zu izten zaitut, Amatxo,
zu itzirik bezauta...
Eztot gura etorri
zu ikusteko orrelan.*

Ama ez dau negarrez, intzirika ikusi nai; ez, emon
eutsan esnea etzan amaren zori txarra negartzeko. Ne-
garrik ez dau gura; zanetako odola emon bai, oster, a,
ama illa biztu-azoteko.

*Eztot gura negar ein,
bijotzeko Ama;
emon zeustan esnia
negartzeko etzan:
odol zu biztuteko,
odoldu dakidan!*

Xurgatzen dogun esneak odola ugaltzen dausku, eta
odolak indarra. Odola nai dau Arana'k, Ama illa, odolik
bakoa, odolez bete ta biztu dagian. Gogorakizun giar,
ausart, egiazkoa.

*Bizkaitarra agerkarian azaldu zan, 8'garren zenbakian,
1894-jorrailla-22'an.*

II

BIZKAITARRAK GARA!

Abesti aberkoia. Noz-nai ta nun-nai nor garean agertzeko, au da, geure deitura ta nortasuna edozeiñeri aitzen emoteko, gertu egon bear dogu. Bizkaitarrok, obeto, euskaldunok are geiago; lau aizetara zabalazi oi dugu, ba, geure jatortasuna, prestutasuna, euskaldun izate gurena.

Amairu aapaldiko zortziko txiki onetan, ain zuzen be, orixe autortu ta erakutsi nai izan dausku Arana'k; bizkaitarrak gareala. Zelan? Jaungoikoa ta Lege Zarra gurtu, zaindu ta goretsiz. Ona asierako lelo bipilla:

*Bizkaitarrak, bizkaitarrak gara:
Gora Jaun-Goikua ta Lagi-Zarra!*

Antzetsu ta eder-senez eiota dagoz aapaldiak, gogaiz eta biotz-ondoiz gainezka.

*Ezkara espāñarrak, / ez arrotzaliak,
ez maketuen edo / motzen aizkidiak.
Geure Ama danaren / geu gara semiak;
bera Bizkaya dala, / geu gara beriak.
Bizkaitarrak...*

Etsai ta arerioak antxiñatik izan ditu Bizkaia'k. Gogora Padura, Mungi ta abar. Zelako burrukak geurea zaintzeko! Antzeko etsaiak ditu gaur-egunean be. Gaitezan etsaiaren etsai, geurea jagoteko.

*Antziñan Erdelerrria / geure Bizkaya'ren
arerijua zana / ezta atzeratuten.
Bizkaya maitetuko, / bera-arerijuaren
arerijuak ixan / biogu lengo-len.
Bizkaitarrak...*

Arerioa azpiratu al izan daigun, bada, geuk arerio izan bear dogu lenbaitlen. Etsaiak antxiña be sarri azpiratu nai izan eban Bizkaia; baiña gure asaba kemen-tsuak, abertzale zintzoak, eratsi ebezan, odolez gorritu-rik aberri-mugak.

*Geure Erri Ama dana/ arrotzak askotan
azpiratu ta bezau / gureben antziñan;
baña asaba zerdenak / eratsi ebezan
odolez ibaiturik / erri-mugea alan.
Bizkaitarrak...*

«Odolez ibaitu», ederto Bizkaitarrak... Aurretiko areik, egi-egiaz, odolez sortu ta jagon eben Bizkaia; gaurko semeok be dagigun olan, odola atonduz Bizkaiaren-tzat. Era askotara erabilten da odola.

*Asaba arek Bizkaya / bestez odol baño
ez euskuela sortu / extogu aztuko;
ta euron seme onak / orain izateko
odola atontzen dogu / Bizkaya'rentzako.
Bizkaitarrak...*

Bizkai oni etsaiak uxa-erazten danok gagoz beartuak; motzak menperatu bear doguz, gure erri au beti zora-

garri ikusi daigun. Askatasun utsean bizi bedi orrela,
geuk zainduta; orri buruzko lanari lot gakiozan: ez nastu,
arren motzakaz.

*Geure Bizkai maitia / motzak menbetuta,
nai biar dogu danok / olan dakuskula,
bere askatasuna / Askatasun utza,
ezpa-gagoz nastuta, / motzak ezpa-gara.
Bizkaitarrak...*

Lotsakizun izugarria da erri batentzat inoren mende,
inok jarritako kate artean zinkulinka egotea. Bizkaia
gaur inoren agindupean dago, bere zabarkeriz eta itxike-
riz askatasuna galdu dau-ta; askatasun eguzkiak ez dauto
txinpart joririk bialtzen. Neketan dago, negarrez Lotsa-
garria! Ken daigun gainetik kate laidotsu au, ta zorion-
eguzkiak orduan nirnir egingo.

*Azkaturik Bizkaya'k / kate lotsadijak,
laster eukiko doguz / zorijon garbijak:
Jaungoikua lenengo / eta bere egijak,
bere Semiak emon / deuskuzan lagijak.
Bizkaitarrak...*

Jaungoikoa lenengo ta onen legiak. Ortixek beioa biz-
kaitarren jokabidea, euzkoen arnasa. Orren azpian baita
Gernika'ko Batzarra be, ta onek egingo dauskuz, antzi-
na lez, Lagi-Zarra ama daben lege bikainak.

*Jaun Done Goikuaren / beyan egongo da
Bizkai'ko erri danon /Gernika'n Batzarra;
antxe lagi ederrak / eingo dauskuzala,
Lagi-Zar'tik urtenik/ artex-arte dana.
Bizkaitarrak...*

Ez aztu euskal ekandu onak; su-piztu ta eragin eurok,
eta oneik uxatuko dabez motzak mendi, baserri, kale ta
uri-bazterretan sartuak.

*Oikunde onak eta / ekandu ederrak
ordetuko ditube / motzaren okerrak;
eta onduko dira / mendiko bazterrak
ta etorriko yakuz / zerutik eskerrak.
Bizkaitarrak...*

Itxaropenaren argi-dirdira, gure abenda orain loitu-
rik ba'dago be, jagiko da; jausirik ba'daukagu be, kemen
barriz jantzita, jasoko yaku. Eta Bizkaia, bizkaitarrena
izango.

*Antziñeko enda zar, / garbi ta bakana,
orain maketuekaz / dagona betuta,
biztuko da ta betik / jagiko da gora,
eta bizkaitarrena / Bizkaya ixango da.
Bizkaitarrak...*

Bizkai osoak berabil euskera ezpanetan; olan bear
da-ta. Itxi bei erdera erdeldunentzat, arrotz bedi gure
errian, eta euskera gure izkuntza gozoa, egunerako min-
tzabide bakarra.

*Bizkai gusti-gustijon / Euzkera gozua
egingo dogu danok / biar dalakua;
ta motzen erdere / aldendukogula,
gure erriko edonun /arrotz-etsiko da.
Bizkaitarrak...*

Orobat opa dautse zazpi euskaldun erkiai. Bizkaiak
ez ditu baztar lagako, anai kutun, odoleko ditulako.

*Nabarra, Benabarra, / Araba, Gipuzko,
Laburdi ta erritxat / daukana Zubero
eztitu Bizkai onek / iñoz ez itxiko,
bere anai maitiak / eurok diralako.
Bizkaitarrak...*

Azkeneratzean, Jainkoa dakar gogora barriro amabigarren aapaldian, berak gogo dauan lez izan dedin Ari laguntza eskatuaz. Baita Lagi Zarra be. Bizi beitez biok. Bizkaia'k, olan, eta Euskalerrriak, indar biok korapillatuta, etsaiak astindu, kateak etenik, egun aintzatsuak ikusi al izango.

*Bixi bei Jaun-Goikua, / bixi Lagi-Zarra!
Biz eurokin betiko / Erri bizkaitarra!
Bizkai ta euzkelerri / dana batzatuta,
errez arrotza daike / bertotitxe bota.*

Jainkoz ta Lagi-Zarrez —foruekaz— muker ba'gabiltz, ostera, ezingo dogu bururik jaso.

Oar: Bederatzigarren aapaldiko irugarren bertsoan, *orain maketuenak* dakarre bai «Olerkijak» eta bai «Obras Completas» liburuak. Baiña, nire ustez, irar-utsa daukagu emen, esan-naia orrela illun geratzen bait yaku.

Ikus «Bizkaitarra», 23 zenbakia, 1895-epailla-24.



Mendi-zale zan Arana, al eban guztietan erriz-erri
ibiltzen zana. Balta eiztari be. Mueta oneko txa-
kurrak eder zituan.

III

ORAINGO BIZKAI-BIZKARRAK

1896'neko orrillean biribildu eban Arana'k olerki mamitsu au. Zazpi aapaldi ditu, ta zortziko nausitan egiña dala dirudi. Ari ontako bertsoak alan be lenengo ta irugarrencan —5 / 5— etena edo ebagia eskatu oi dau: Arana'k ez dautso arau orreri jaramonik egin. Abesteko, baiña, dalako eten barik zail egiten guri. Ez dakigu, gaiñera, abandotarrak zeren doiñuri jarraiki osotu eban lan au. Bestaldetik. K. Eleizalde'k oarrean diñoan doiñuz abestuz gero, erren samar geraruko zan naitaez. Onek

Ai, ai, txiki, nungua zara?

— *Jauna, ni Markiñekua...*

— *Txanpon bat baño gurago neuke
baziñe neure errikua.*

abesten dala diño. Erri kanta onek, oster, bederatzi silaba daukaz lenengo bertsoan eta zortzi bigarren. Zortziko nausitan kanta nai izan ezker, edozein doiñutan, abeslari ona danak be larri ikusi bearko bere burua. Izki bikiak eta sinalefak ondo jagoten ditu. Aapaldi bako txaren ondoren leloa dator, zortziko nausitan ondua au be.

Arana'rentzat Bizkai izena *bizkar* itzetik eratorria dala dirudi. Ak bere abertzaletasunaren azia ereitean, aurrenik Bizkaia'n egokitu nai izan eban lurra; gero etorriko ziran beste erki ta probintziak: lenengo etxea. Bizkaia —*bizkar-dia, bizkadi-a, bizkai-a*— *Bizkardi* bat zan lenago be; au da, *bizkar* moltzo bat, Aberriari eusteko. Oraingo, orraitino, beste *bizkar* batzuk daukaz eta oneik damotse izena. Ona berak:

*Aberriak Bizkaya ixena dau:
Bizkardi bat zan len bere;
baña orain daukazan bizkarrak
ixena zikintzen dautse.*

Eta jarraian leloa, errepika, zazpi aapaldien ostean bir-esango dana.

*Auxe da, anayak, zorigeztua;
au lots andiña da argira!
Bizkaya'ri bere izena berez
garbi geratu etxako.*

Antxiña bai, garbia eban izena; orain loiaren likiña dariola. Jos gogoan au. Orixegaitik errepikatzen dau zazpi bider. Loituaren egoera sakonago egizta nairik, mendietara urten dedilla diñotsa bizkaitarrari; araka dagizala zokondoak, mendi, muiño ta ibar: motzez beterik aurkituko ditu.

*Mendijetako bizkar zabalak
aratu egixuz ondo,
ta idoroko dozuz motzallez ta
motzez beterik osoro.
Auxe da, anayak...*

Berealaxe, barruan ondo itsatsirik daroan gogaia: ez dira orreik soil-soil Bizkaia'k ditun bizkar makalak: Bizkaitar semeak be pozik daroe arrotzak lepo-gaiñ ipiñi dautsen kate-zama. Lotsagarri, baiña egi utsa!

*Bizkai-semien bizkar senduak
arrotzak ezarritako
kate lotsadizko zama aztuna
pozik dakarre polito.
Auxe da, anayak...*

Oldozkun bitxia! Bizkai'ko semeak eurak dira saltzaille, ta saltzetik jaso daben dirua arrotzak ipiñi dautsen kate bizkar jarten dabe. Diru au sarri, emengo jauntxoak auteskundietan autarki, boto ordez emonda, bizkaitarrak artu eroiena izaten zan.

*Baña euron bizkarrak senduak
dira, ta kate-ganian
euron buruben saltze-diruba
ezartzen dabe askotan.
Auxe da, anayak...*

Ez semeak bakar-bakarrik. Bizkai-ko alabak be, arrotzen bidez dabilkiguz, arrotzen izkera, jazkera ta oiturak atsegin yakez. Len kopeta ederrez estaltzen ebezan sorbaldak; orain, motzak lez, dakarre ulea, adats luze zerdenez bizkarrak estali barik. Oro aberri-giro ta kutsesko nai eban Arana'k.

*Gaurko Bizkai-alaba eurok
eztabe nai kopetarik:
Bizkarretik jasota ule ederra
dakarre, motzak letxerik.
Auxe da, anayak...*

Gaur-eguneko gure bizkar-moltzoan ez dau Arana'k bizkar zindorik, arrak jo bakorik somatzen. Ondatua dakus oro, zedenak jana, erdi-illik; aularen aulez noiz jausiko daukagun tantai antzera. Ona:

*Bizkai onetako bizkardijan
ezta iñun bizkar zindorik
bizkar guztijok dagozalako
gusti-gustiz motzaturik.
Auxe da, anayak...*

Ikuskizun baltzegia bear bada? Ba-dira, alan be, naizta gitxi, bizkaitar, langille, prestuak, Aberria egiaz maite dabenak. Onetxek, ondar autatuok, alegiñak aletin erre dabez Bizkaia *bizkar* zindodun Bizkai biurtzen. Eta zindo gitxik sarritan, kaxkar ugarik baiño ale bikain geiago emoten.

*Gitxi dira Bizkai-seme onak,
gitxi dira bizkaitarrak;
gitxi, bizkaitartasun-zamea
zindorik dautsen bizkarrak.
Auxe da, anayak...*

Bizkaitartasuna! Itz sotilla, ziñez! Gizonak zerbait izateko, nortasuna bear. Euskaldunak, ziur, bere euskalduntasuna. *Tasun* ori barik, zer ete gintzakez?

Oar: Aberri = *aba-erri*; idoro = *aurkitu*; motz = *belarrimotz*; arrotz = *erbestetar*; dautsen = *eusten daben*.

Ikus: *Baserritarra*, 7'garren zenbakia, 1897-bagilla-13.

IV

GAURIK BALTZENA (ARRATS-ABESTIJA)

Ederra, Lamennais'entzat, egiaren agermana, egia bere barne-zerean azaleratzea, ezta besterik. Egia uts dogu Jainkoa. Izadia ta bertoko gauzak sortu ta eratzean, Ak bere egiaren ederra dizdizka itxi euskun. Olan da izadia, zeru ta lur, itxaso ta izar. Onek zer adierazten ete? Ertilari dala, Jainkoa, geometra nagusia, Platon'ek iñoa-nez.

Gizonak be, beraz, egi goitar orren zerbait daroa, ertilari gurena dau eredu. Jainkozko lana ulertzen alegindu bear dau giza-semeak; orixe bait dau betiko jakituria, onaren eta ederraren sorburu. Eta ertia, artea, jakituri ori baldintza gaikor eta sentikorreztaztea da; ortik, ba, pentsamentua —*batasuna*— goitik yatorkona dau, goi-atsak eraginda arimara jausia, ta gaia lurrekoa, era askotarikoa —*askotasuna*—, gizonak, ertilarri dan gizonak, bere adimena ta biotza irauliz, moldatu daroana.

Antzeko zerbait daukazu emen, irakurle. Poesi au arrats abesti bat dozu, olerkariak kantatua. Zelan sortu ta moldatua? Zelako bideetatik ibilli yakun olerkaria poema txiki au eratzeke? Arana giltzapean egoala egiña do-

zu, ziuurrik asko. Gaualdi baltza, guztiz baltza igaro dau: ekaitz zakar ostekoa nunbait. Espetxetuak sarri izan oi dabez —ba-dakit nik— olako gau larri, goibel, negargu-razkoak.

Eguzkiak iges-egin dau giltzapetuaren gelako burdin-ari artetik, itxasperuntz egiñaz. Unetxo baten illun bal-tzenaren mende geratu dira bazterrak, kale, etxe, men-digaillur ta abar. Olerkariak, bere naigabearen orrika ar-tean, Bizkai osoa dakus orrelaxe, illunaren maindirape larri, itsean; Lagi-Zarra galdu eban ordutik estu, jau-sia, baltzitua agiri da oso-osorik: illargi bageko gau-rik baltzena emoten dau. Bizkai gaxoa!

Giltzez itxita dagoan olerkari abertzaleak, izu-labo-rreretz eta oiñazez, idazkortza jarri dau atz-artean; zerbait adierazo nai dausku. Gaiñezka, lertu-bearrean daukoz adimena ta biotza, gogarte luzearen ostan; sarri, alan be, ezin adieraztera emon nai geunkean guztia ...Itxasoa, adibidez, urdin ta nare, edo-ta zakar, olatu bildurgarriz asetua ikusi ondoren, nor da gai barne irakin bizitan daukazan gogaiaak papereratzeko? Olakoetan itz totel bi-tan autortu oi dogu zeozer. Era orretan osotua dozu oler-ki au.

Dan... dan ...dan!
Eguzkijak iges-einda,
dana illundan.

Ez ete dautzu egundo, illargirik ez danean, ibar illu-nak atzemon? Gabak ba-ditu, bere baltzaren altzoan, ez-kutuzko misteri ulert-eziñak. Illunaren gerrestupean ez ete izu-ikararik? Angula zaleak, alan be, kruseluak ixetu ta Ibaizabal ertzean, Bilbao'ko San Anton eleiza on-doan bear bada, arrantzuan diardue. Ume zanetik ikusia eukan Arana'k gau-arrantzale onein lana. Baita kanta au be umetatik ekian:

*!Chir... chir... chir!...
Angulitas al sedaso
han de venir.*

Kantu onen doiñutan moldatu eban Arana'k olerki-
txo au. Onela abestuz:

*Bizkaya estal
bei gau-pian:
Lagi-Zarra gal eban da
baltzitu zan.*

Etsipen ikaragarritz idatzia dozu estrofa au. Ezin geia-
go. Bizkaia, bai, estal bei gauaren azpian. Zergaitik? Ai,
Lagi-Zarra dau galdua! Ez dau merezi aurrerantzean bizi
izaterik! Nortasun barik dago Bizkaia, ta nortasun bage
illa dirudi. «Baltzitu zan» diño garrazika, zizpuruz. Biz-
kai-lurra, oi!, «baltzez» atsitua!

* * *

Oindiño be, zoritxarrez, egoera bardiñean daukagu
gure erria: Bizkaia, ta Euskalerra osoa, bere Lagi-Zarra
galdu ebanetik, gaurik baltzenean murgilduta bizi da.
Egoki ta zuzen da, beraz, Lagi-Zarra opa izatea, geure
foruak, ostutakoak, aspalditik zor yakuna, etxean, kalean
naiz Kortietan, txilioka be, eskatzea.

20.

IRU ITZULPEN

I

GURE AITA

Geure Aita Goikua:
zeure ixena donetsi bedi,
zeure ala belkigu;
zeure gurea egin bedi donokijan lez ludijan be.
Emoguzu gaur be geuretzako ogi egunekua;
azketsi geuri geure zorra geuk be
geure zordunena azketsegun lez;
ta ziltzaldijan ezkaixuz itxi,
gatxetik jabon baño.
Olantxe.

II

AGUR, MIREN

Agur, Miren, eskarrez betia:
Jauna zeukin;
donetsija zeu emakumien artian,
eta donetsija zeure sabelak sortuba
Josu.
Miren Deuna, Jaungoaren Ama:
geu obendijoen aldez otoi-egixu
orain eta geure erijotzaldijan.
Olantxe.

III

AINTZA

Aintza Aiteari ta Semiari ta Goteunari.
Len lez, orain, beti ta amaibako egunetan.
Olantxe.

V

URKIOLA'RAKO BIDIAN

Mendigain arro, nabarmen eta gaillenez jantzirik daukagu Bizkaia: Anboto, Oiz, Urregarai, Sollube, Bizkargi, Gorbei, Pagasarri, Ganekogorta, Eretza, Kolutza... Abadiño ta Mañari gaintxoan, Anboto ta Sabigain artean anka-triko dago Urkiola; eta Andoni Deunen Santutegia bertan, biotzentzat indar erakarrez zoragarri. Santu oncin egunez ezezik, urte barruan be, uda naiz negu, jentetza errimeak jo oi dau bertara, ak zein onek eskari beroak egiñak Santu mirarigille biai.

Arana'k, ez gitxitan be, egiña eban arako joan-etorria; baita jentearen siñismen sutsuaz arriturik iñoiz geratu be. Poematxo ontan olerkariak iru jente-mueta dakus Urkiola'rako bidean: 1) neskatx bat, gudari daukan neba gaiztotu ez dedin, eskatuko dauana; 2) senar-emazteak be bidean doaz; zer eskatuko Andoni Deunai? Eureka daroen umetxoa, arren, Jainko-zale ta Lege-Zar zale izan daitela; eta 3) aitita ta gexorik dagon billoba dira. Bakotxak dau bere eskakizun auta Urkiola'n egi-teko.

1) *Auzokuak*

Neska bat doa bidez, arin-arin, Mañari'tik gora. Lanean diarduen auzoko batzuk, orren leiatsu ta bizkor ikusirik, itaunka diñotsoe:

— <i>Ain arin</i>	— <i>Zein arren</i>
<i>nora yuan</i>	<i>Urkiola'n</i>
<i>uso zurijena?</i>	<i>Deunari eiteko?</i>
— <i>Mendira,</i>	— <i>España'n</i>
<i>Andoni'ri</i>	<i>neba ona</i>
<i>egitera arrena.</i>	<i>ez gaiztotuteko.</i>

2) *Ezkonak eta lenengo umia*

Atxiki ta Untzilaitz tartean dagon Atxarte'n gora doaz Jon Ander eta onen emaztea. Zimiko lez ozka ardura bat dakarre biotzean: zer eskatuko ete? Mesederik asko artuak dabez aspaldian Urkiola'ko Santuengandik. Emazteak sei illabeteko umetxoa daroa besoetan.

— <i>Jon Ander,</i>	— <i>Zelan, ba,</i>
<i>ze eskiñiko</i>	<i>geuretxu au</i>
<i>yeutsagu Deunari?</i>	<i>ixangok beria?</i>
— <i>Ume au</i>	— <i>Ba-dona</i>
<i>emongeutsan</i>	<i>Jaun-Goiko ta</i>
<i>biotzez Berari.</i>	<i>Lagi-Zar-zalia.</i>

3) *Aititea ta billoba gexua*

Txakur-zulo baiño pizkat beeratxoago gorantza doa agure bat, mutiko bat eskutik daua. Mutikoa aspaldian gexo samar dabil, eta aititak Urkiola'ra daroa, Andoni

Deunak berorri bear leukean osasuna emon dagitson. Zar-
txoak eta gazteak autu gozoan egin dabe beetik gorakoa.
Zer eskatuko Andoni Deunari? Jakiña, mutikoarentzat
osasuna. Billobak aititari:

— *Aitita,*
Deuntxubari
ze eingeatsat eskatu?

— *Laztana,*
lastertxuben
agigun osatu.

— *Ta gero*
zelan eskar
emongo deatsat nik?
— *Seme on*
ta bizkaitar
zintzoena ixanik.

Alkar-izketaz osotutako bertso pilloak doguz euskal
literaturan. Orrein artean au ez dogu kaskarrena. «— Ma-
ritxu, nora zoaz, / eder galant ori?» lez abestuten da.

Ikus: *Baserritarra*, 12'garren zenbakia, 1897-garilla-
18. Ementxe agertu zan lenengoz.



**«Agur Marija, orban bagarik
sortuba».**

**Arana Goiri'tar Sabin bizitza
guztian izan zan Andra Mariari
eraspen aundia eutsona. Atsegin
yakozen Euskalerrian ainbat
daukazan aren santutegiak.**

VI

MENDIKO NEGARRA

Olerkarien edestitik errez jakin daikenez, poetak ez gitxitan erritar olerkia ikasi, aztertu ta gero euren oler-lanak olakoetan oiñarritu izan dabez. Uka-eziña da Arana-Goiri'ren poesi-sena; eta, alan be, bere lanik geienak erri-kantu doiñutsuetan tinkotuta osotu euskuzan, bertsolarien aapaldi giarren antzera nunbait: erriko abesti bati oiña entzindurik egiñak ditugu. Europar literaturako poetarik aipatuena orrela jokatu dabe, azken urteotan bereziki.

«Mendiko negarra» deritxon au erri-kanta guztiz eza-gunean irozo ta zurkaiztua dago. Euskalerrian askotxo dira doiñu samurrezko abestiak; urrengo au be orrean artekoa dozu:

*Ai, ori begi ederra!
Iduritzen zait eperra!
Gauza oberikan, zer da?*

Izki ta musika, gozotasunaren betea dakarskue aapaldiok? Doiñu auxa jaso ta aukeratu euskun abandotarrak bere illots eresirik gozo, biotz-ikugarri, sentikor eta zinkuliñezkoena aragi biziz jazteko.

Aberria begi-tarteratu yako iñoren mende, buru-ja-betasun barik, lenago iñoiz ikusi etzan lez. Eziña yakon bizirik irautea. Eriotza ebilkion zemaikor, karraxi latzez. Era onetan asten dau «Batzutakua» deritxon leloa:

*Ene Aberri laztana,
jausi zara España-pian.
Obia erijotza da!*

Onen ondoren datoz amabost aapaldi. Aberri laztan au, lenago ez eben keltarrak, erromarrak, ez erri basatiak azpiratu. Orain, osteria, txarrena egin yako jabe. Au lotsaria!

<i>Aberrija, nok</i>	<i>txarrena</i>
<i>ikusi zindun</i>	<i>zeure jabe</i>
<i>iñoiz erbestek</i>	<i>eta jauna da.</i>
<i>bezauta!</i>	<i>Zelan lotsaz il etzara!</i>
<i>Orain gustirik</i>	

Antziña, dakigunez, Bizkaia'k Jainkoa eban bakar-bakarrik nausi ta jabe: Urtzi. Orren esanera ebillen gizaldiz gizaldi. Entzun:

<i>Antziñan zeure</i>	<i>dongerik</i>
<i>Jaun nagositxat</i>	<i>dongienak</i>
<i>Goikua zendun</i>	<i>zagoz beturik.</i>
<i>bakarrik.</i>	<i>Il baño ezta oberik!</i>
<i>Orain erbeste</i>	

Itzetik ortzera eusko mendi, baso, aran eta onakoak, au da, Euzko-lurra osorik jarten yako dardarka gogoan. Au be bai: lenago euskal sukaldetik, ke zuria iduri, eskari ona, Urtzi'ri egiña, zerurantz joian. Gaur...!

*Zeure basotik
atzo igoten zan
eskari ona
zerura.*

*Gaur erdeldunak
sartuta,
axia emen
birauz bete da.
Zelan ondiño il etzara!*

Edesti-aurretik, eta gero luzaro, erriak burutu oi ziztuan alkar-arteko bizitza, eguneroko jokabide ta eginkizunak, aurrerakuntzak zuzendu ta obetzeko ziran legeak. Asetu arte esan dogunez, Bizkaiko erriak berak egin ziztuan beretzako legeak: Gernika'n, Abellaneda'n, Gerediaga'n... Arana'k edu onetan:

*Len zeurentzako
lagi gustijak
zeuk egiten oi
zenduzan.*

*Gaur motzak einda
España'n
zeu salduta
zakoz an bertan.
Zegaitik iltzen etzaran!*

Legelariak, joan urteetan, maite eben erria; zugatzpeetako batzarretan erriaren ona billatzen zan bakar-bakarririk, sendi, etxe, mendi, erreka, itxaso, artzain, nekazari, arrantzale ta enparauen ona ta aurrerapidea. Etzan esateko diru loigarriaren zalekeririk. Gaur olan ete? Entzun:

*Areitz-azpijan
len bizkaitarrak
Batzarrak eiten
ebezan.*

*Gaur Aretxeko
gianian
danak dabiltz
zoli dirutan.
Ta, bixi zara zeu olan!*

Ertzain ziran len bere semeak; gatzakeririk ba'zan, zigorra erabilten zan gaizkiña zentzatzeko. Gaur ez da olan: etsaiak berak gaur jarri dauskuz zaiñak gu jago-teko. Adi:

*Zeure semiak
zenduzan atzo
zeure buruba
zaintzeko.*

*Arerijuak
oraindo
eruatzen
dautzuz galtzeko.
Eta, etzara il ondiño!*

Euskalerrriak, nun-nai ta nainoz, ekandu onak izan dauz etika ta maitasun maillan; iñoiz iñor, geiegikeriz edo, ekandu zindo orrein ausle ba'zan, erriak zituan legeak, Foruan etozanak, ain zuzen, eta areik erakutsi oi eutsen olakoai zuzenezko bidea. Lege ta ekanduok ekarri eutsen zoriona gure asabai. Baiña gaur...

*Ekandu onak
asabeari
zoruna emon
len eutsen.*

*Ara motzenak
gaur emen
zeure bijotz
garbija usteltzen.
Ta zeu, Ama, etzara iltzen!*

Gure abenda, abenda zarra da. Gaurko jakitun askok lerrenak eta nekeak erre ta jasanak dabez bai eusko endaren eta bai euskal izkuntzaren jatorri billa: batek, oraintsu, an Kaukaso'n, Georgia'aldean idoro ei dautsa bikia. Baiña orrek be, olako askok lez, aldia ta ezkurra alperrik eralgi, ez dau besterik lortu. Gure erraza misterio uts dogu beti; gure izkuntza, barriz, ezkutu biurri. Nor ete orrein leza-barnera jasteko lain? Euzko abenda, aratz garbia zan, eta orrelaxe iraun izan dau oraintsu arte. Gaur ba-da nasterik, odolean be. Odol loitan itxiak gara!

*Abenda zarra
zeure semiak
irauten eben
len utsik.*

*Arrotzakin gaur
nastaurik,
zeurentzako
ezta odolik.
Zelan etzara il bertotik?*

Gogor egiten yagon len etsaiari. Gogora Bizkai'ko Forua, gogora Orduña ondoko Malato zugatza: maite dana sendo da jagoten. Maite-gar bage, zabarkeriz bazterrak loitzen. Odol-nasterik etzan len, gaur euzkotar alabak errez ezkontzen yatzuz odol pozoituarekin.

*Len zeure seme
eta alabeak
ezesten eben
arrotza.*

*Españarrakin
batuta,
gaur ezkontzen
dabe berbera.
Oraindik zeu bixi zara!*

Izkuntza dau gizonak doairik gaillenena. Guk euskera dogu ele garden; asabak itxi euskuen, euren asaben asabak jakituriz sortua, gizaldien gizaldiz mintzatua. Guk be, geure nortasunari uko-egin ezik, etxean, kalean, nainun ta noznai mintzatu ta ondorengoai irakatsi bear dau-tsegun izkuntza garbal azarria. Berau ezetsi naiz galdu daroan euskalduna, ez ete da etoi endekatua?

*Len euzkerea
zeuk belarrijan
zentzuban biar
zan legez.*

*Euzkeldun garbi
bat berez
ezin da gaur
idoro iñun bez.
Zelan etzara il zeu lorrez!*

Jainkoa ta lurra; lur-gaiñean gizona, Euzkadi'n euskalduna, lege zar, izkuntza zar, ekandu berezi, kanta gozo ta dantza bipillez ornidua. Lagi Zarra ta Jainkoa, euskalduna fedez jantzia, izate bi baten oreтуak; kendu Jainkoa ta gure legeak ez dabe indarririk. Gure etsaiak, ostera, Jainkoa kenduz lagi zarrak izpi-egin eta saportu ditu, ebenda, euskera ta dana birrinduta itxirik.

*Goiko Jaun ona
kendu dautzunak
Lagi Zarrak dauz
suzitu:*

*Abendea be
il dautzu
ta euzkera
dana zatitu.
Ta, olan bixi nai dozu!*

Gurutzea zan beiñola, zeruan dizdizka. Dizdiz arek gure Areitz deuna eban ostu muskerrez jazten. Gaur ez da orrela, tamal aundiz! Areitzaren adarretan ezta azirik, ez Gurutzerik.

*Eztakust orain
zeure zeruban
Gurutz Zuriya
argirik;*

*ez zelan bez
azirik
Areitz Deuna
orleiz jantzirik.
Ta, bixi zara billosik!*

Ai, baltz da Gurutz zuria; ubel ta laru, orimiñak joa, Areitz orlegia. Ez yako ezer geratu, len zanetik. Aberri!, il zaita!

*Gurutz Zuriya
baltzitu da ta
Areitz orleya
oritu.*

*Geratu ezer
etxatzu:
seme onik,
Ama, eztozu.
Il, Aberriya, zakigu!*

Jasangaitz da! Ainbeste esker txar! Aberria, seme onik ezak, iltzear jarri dau. Eta obi ondora urrera-tuaz, negarrari emon dautso samiñaren samiñez. Odolaren berorik ez-ta, itzali yako gogoa.

*Obi-onduan
negarez zakust
miñez beterik
gaxoa!*

*Amatau yatzuz
gogua
ta odol
orren berua.
Ta, Ama, ondiño il etzara!*

Olerkariak, ama bizirik oindiño, ez dau negarrez ikusi gura; arerioaren ezpanetan negarrak irri-barrea sortzen. Au jasan eziña yako Arana'ri; ez, olakorik ez! Aberria, ia illotzik, azken zotinka, ta etsaia barre-zantzoka... Ez, ez, ori ez! Etsipenaren gaillurretik diñotsa: «Ama, laster il zaitez!».

*Ez egin negar;
etzaut, Ama, nai
negar-egiñik
zu ikusi:*

*zeure negarrok
motzari
eragiten
dautso barre-irri.
Il, Ama, laster! Il zadi!*

Illeta kanta samur sentikorra! 1896'neko maiatzean osotu eban. Bederatzi bertso daukaz aapaldi bakotxak: bost bost silabadun, iruko bi, lauко bat eta zortzidun bat. Laugarrenak, seigarrenak, zortzigarrenak eta bederatzigarrenak darioie oskidetasun bardiña, au da, rima. Izki bikoitzak eta sinalefak, arreta aundiz zaintzen ditu. Mendiko negara dala diño egilleak; eta mendian osotua ez ba'da be, mendi-erpinetako biotz-ikutu ta gogai berroz mamindua ez danik, nok esango?

Ikus: *Baseritarra*, 13'garren zenbakia, 1897-garilla-25.

ZORTZIKO NAUSIA

«Gure olerkien artean —diño J. M. Leizaola'k— ugarien, errezen ta egokien dana, zortzikoa da. Ez det, ordea, ta aspaldi atzetik nabil, *zortzikoaren* azterketa oso bat arkitu. Batzuek zortzikoa zer dan ere igartzen ez dute. Ta ori, ahapaldi au oso zabaldua dagola ikusita gero».

Gure zortziko nausia era bitara idatzi daikegu. Leizaola'k, Areatza'ko Urretxindorraren aapaldi au, onela dakar:

*«Eguzkiaren
argia бага
ezerk eztaun lez
bizirik,
gure euskera zar
maite barik be
ezta euskotar
erririk».*

Baiña onela be idatzi daikegu:

*«Eguzkiaren / argia бага
ezerk eztaun lez / bizirik,
gure euskera zar / maite barik be
ezta euskotar / erririk».*

«Euskal-zortzikoa zer dan esan dezadan, bada: Zortzi neurtitz, lendabizikoa, bigarrena, irugarrena, bostgarrena, seigarrena ta zazpigarrena bost izkindun ta amayera berdingabekoak, ta laugarrena ta zortzigarrena iru izkindun ta amayeran berdiñekoak dituan ahapaldia *zortziko aundia* da». (*Ibidem*, 77 orr.).

VII

IÑAKI DEUNAREN MARTXA

Bizkaia'ren Zaindari dogu Iñaki Deuna (1491-1556). Loiola'ko seme prestu au, 1622'an deuntzat iragarri eban Aita Santu Gregorio XV'garrenak. XVII'garren galdirantza fede bizitan ebillen Euskalerria, eta onek bertoko balioak batez be aintzat artu oi zituan. Iñaki Deuna Azpeiti'n jaioa zan arren, ba-eban bizkaitar odola be, Lekeitio'ko ta Ondarru'ko Likona'tarrena.

Eta 1680'garren urtea zan. Gernika'n Batzarra, urte ortako azillaren 5'an. Landaia aita, bizkaitar jesuitea, ez egoan lo. Gernika'ko Batzarrera urreratu zan, egun orretan zerbait eskatu nairik: Elgezabal sindikuak olan iragarri eutson Batzar buru zanari, eta eguerdirantza batzartokian sartu zan Landaia aita, Metzeta'r Juan Antonio'k eta Larrea'tar Frantzisko'k lagunduta. Loiola'ko Iñaki Deuna, Jesus'en Lagundia sortu ta antolatu ebana, bizkaitar genduan amaren aldetik, Ondarru'ko Likona senditik etorrena. Augaitik Batzar Nagusiari, itzal aundiz, eskatzen eutson autetsi egiala Deun Iñaki Bizkaia'ren Zaindaritzat.

Eta Batzarrak, asmo-agerpen ori ondo eztabaidatuta gero, aintzakotzat artu eban: «atsegifiez ikusten ebala»

Iñaki Deuna Bizkaiko Zaindari. Ordutik, beraz, geroago 1738'an eta 1903'an Begoña'ko Ama be ortakotzat auke-ratu izanik be, Loioa'ko Iñaki Deuna izan da Bizkaia'ren Zaindari. Ontzat artze a alik eta edertoen ospatzeko jai aundiak egin ziran Bilbao'n; andik laster Erroma'ra ida-tzi zan, Aita Santuari ortarako baimena eskatuaz; 1685'an lortu zan baimena, ta arrezkero jai osoa egin izan da, bai Bizkaia'n eta bai Gipuzkoa'n, Iñaki Deunaren egu-nean, ots, garagarrillaren 31'an, ain zuzen Iñaki Erro-ma'n il zan egun-egunean.

Nundik norakoa ete da Iñaki Deunaren martxa ospatsua? Amazortzigarren gizaldian iru josulagun dauka-guz Loiola'tarraren bizitza irakaspenak Euskalerrri osoan zabalazi ebezanak: Aita Manuel Larramendi (1690-1786), Aita Agustin Kardaberatz (1703-1770) eta A. Sebastian Mendiburu (1708-1782): irurok euskal idazle jator. Oneik eta onein antzekoak eragin-azoak nunbait, eza-guna zan guztiz antxiñatik Iñaki Deunaren martxa, le-traz ta musikaz izan be.

Letrari gagokiozala, leen eta oraiñago, naikoa idatzi da ontaz; ez aztertzeke bakarrik, baita abesteko be. Eza-gunena, orraitioño, au dogu: «Iñazio, gure Patroi aundia». Norena ete da berau? Agustin Paskual Iturriaga, ern-niar apaizarena, itxura danez; arek dakar beintzat, be-rak «Fábulas y otras composiciones en verso basconga-do» (Donostia, 1842) izenburuaz argitara emon eban li-buruan. Jose Manterola'k, alan be, bere «Cancionero Vasco» (Donostia, III saila, 1880, *Fábulas inéditas*, 35 orr.) liburuan, barria dala diñosku; baiña musikagaitik diño au, antza danez, doiñua «ezpata-dantza»-tik artua dalako. Iturriaga'k, ostera, letra barria ipiñi eutson.

Dana dala, martxa au oso ederki antolatua da. «Mar-txa zar ederra» Jose Iñazio Arana'k, aita josulagun eus-kal idazle gartsuak, bere «San Ignacio ta bere Eche San-

tuba» (Tolosa, 1811) liburuan diñoanez. Ziurrik asko J. Manterola'ren martxa barria ta J. I. Arana'ren martxa zarra gauza bardiñak dira; urte aretan eta geroago be, geiago egin ziralako jasan eban aldaketa au.

Onez gaiñera, M. Lekuona'k, Iñaki Deunaren bizitza bat aitatu ta argitaldu euskun «RIEV» (Paris, Donostia, 1931, XXII, 338 orr.) aldizkarian. Egille ezezagunarena da; izenburua, barriz, onela dau: «San Ignacio Loyolacoaren vicitza, ogueta amazazpi versotan jarria, bere marcharen doñuan cantatu bear diranac» (Tolosa, Andres Gorosabelen moldetegian, urterik gabe). Bizitza au, Iñaki Deunaren martxa-musikaz abesteko moldatua da. Liburuaren asieran dator martxaren doiñua, lenengo kantuko letra ta guzti. Norena ate? Galde dagi M. Lekuona'k. Esan dogunez, ez dakar bertsolariaren izenik, ez urterik. «Nor baitec» egiña dala diño itzaurrean, eta apaizen batek eunduak ain zuzen be. Bestaldetik, Beterri aldeko izkera darabil idazleak. XIX'garren mende erdirantzako kutsua ba-dau orraitio.

Martxaren doiñuari gagokiozala, bikaiña da bere jatorrean; dantzarako egiña dala dirudi, giza-indar bipillez ixiotua. Azpeiti'ko kaleetatik Loiola'ra bitartean, ibilliz, martxa luze zabalez abesteko antolatua, nunbait. Martxa onek, egiazki, barne-muiña dardarazi oi dausku, ta soiña be dardar orren arioz dantzarako egokitu. Gure erriak leia bizitan kanta izan dau beti.

Martxa izki askotxo diran arren, erriak gaur be urrengo au kantatzen dau geienean:

*Iñazio,
gure Patroi aundia!
Jesus'en Konpañia
fundatu
eta dezu armatu.*

*Ez da, ez, etsairik
jarriko zaizunik
iñolaz aurrean
gaurko egunean,
naiz betor*

*Luzifer deabrua,
utzirik inperua.
Zure soldaduak
dirade aingeruak;
zure Gidaria
da Jesus aundia.*

*Garaitu ditu zure
[Konpañiak
etsaiak!
Ez dauka fedeak,
ez, kristau nereak,*

*ez dauka bildurrik
iñungo aldetik.*

*Iñazio or dago,
beti ernai dago,
armatan jarria
dauka Konpañia,
txispaz armaturik,
bandera zabalik,
gau ta egun
guztioek pakea dezagun...
beti gau eta egun,
gau ta egun.*

Martxa onen zatiak, musika ta izki, jakingarriak diranik ezin gengike ukatu. Iñoiz idatzi da —zer ezta idatzi?— letra urria dauala, maminiñ bagekoa. Irakur naiz kanta egizu barriro, ta ikus zerorrek martxari dagokiona dan ala ez. Olerkari trebeak osotua ez ete? Musikaren ibilli azkarrari ederto loturik dago. Ain ederra ezpalitz, gure erriak ez leuke orren gogotsu otsegingo.

Arana-Goiri'k maite-maite eban Iñaki Deuna. 1897' garren urteko «Baserritarra» aldizkarian, garagarrellaren 31'an, aren jaiotegunean, onela idatzi euskun:

«Agur, Deun andija, Jaungoikuak gaitz-gixaldi onetan bere Donabatzaren beso indartsubena ixateko autetsi ta bidalduba! Agur, Gipuzkoa ta Bizkaya'ren Zaindari Zerukua! Agur-egiten dautzugu zeure jayegun onetan BASERRITARRA irazten dogun abertzaliok, eta geukin egiten dautzube geure Ikurrin Deunaren onduan, Aberrija gaizkatuteko, batzaldur diran euzkotar gustijak be! Agur! Begitaldu egixuz zeure erri onek; begitaldu zelangauk diran gaur, atzo, Josu'ren otsein zuzenak ziranok; begitaldu zelan euron atiak arrotz donge bateri idegi dautsoezan, ta zelan arrotz orrek Azkenengo Ama-

yagandik bidakatuten dauzan; begitaldu zelan euren seme onen goguak iltzen diran betiko; begitaldu, ta zeuk, biztoki onetara gixonak gaizkatuteko etorri ziñan zerorrek, zeure errijok gaizkatu be. Zuk zeuk zerorren errijok galdu daitekezala lagatuko dozu? Irakutsi egiguzu Zeruban be indartsu ta altsuba zarala». Ondoren «Ignacio» izena artertzen dau luze ta sakon.

Arana'ri etxakon eder aspaldi bateko martxa zarrak eukan letrea; bizkaitarrentzat batez be, aultxo eritxon: giarrago bat bear zan. Eta berak eratu euskun. Ereserki onek, Bizkaitarren Zaindari zan ezker, bizkaitarrak bizkaieraz jaso ta goretsi bear eben Iñaki Deuna, Loiola'ko seme aundia.

Aitatutako urtean, ots, 1897'an, aurretik sarri lez, jai aundia izan zan Begoña'n gure Zaindariaren egunean. Mezatan, orduan Gazteiz'en irakasle zan Remijio Gandasegi'k euki eban itzaldia; ondoren kontziertua Arriaga antzokian, «Euskeria» orfeoia emonda: asieran Iñaki Deunaren ereserkia abestu eban onek, Arana-Goiri'tar Sabin'en letreaz. Urrengo urtean bere ormarako «Egutegia»-n argitaratu eban «Oñaz-Loyola eta Likona'tar Iñaki Bizkaya'ren Zaindari Deunari Bizkaitarrak» deritxon ereserkia, 1895'n Bizkai'ko abertzaleen alkarte nagusiak be, au da, *Bizkai-Buru-Batzarrak* bere Zaindaritzat autetsi ebalá esanik.

Ona Arana'k Iñaki Deunaren martxa-doiñuari ipiñi eutson izki barria:

Iñaki,
Jaunguak bidalduba
Ludijan ixatera
Josu'ren
Gudarien Buruba!
Batzarrak
autu zindun
Bizkaitarren
Zain Deuntzat.
Zeu zara
Zaindari ta
Jaun onena
Geuretzat.
Iñaki!
Entzun, arren eiguzu
Ta gure opea artu.
Bizkaitarrak
Jayotzetik
Damotzu:
Zeuria da
Beria...

Baso, mendi, ibai, arru...
Zeru-goitik,
Deun Iñaki,
Jagon, ba,
Bizkaya!

Jago-ixu
Jaungoikua
Jago-ixu
Lagi-Zarra
Areyo-
Aurrian Zeuk
Agindu
Bizkaitarra...
Gudean sarturik,
Ezpatea artuta
Bizkaitarren aldez,
Donge ta areyua
Indar zerutarrak
Zatitu osoro ta...
Zori-ontsuba
Bizkaya beti ixango da
Zeuk, Iñaki, zainduta!
Zainduta!

Ona gipuzkeraz be, berak eratu euskun legez:

Iñaki!,
Jainkoa'k bidalduba
Ludiyen izatera
Josu'ren
Gudariyen Buruba!

Baso, mendi, ibai, arru...
Ipuzkoa
Beti zaitu
Zuk ongi,
Iñaki!

Batzarrak
 Autu zindun
 Ipuzkarren
 Zai deuntzat:
 Zu zera
 Zaitzari ta
 Jaun onena
 Guretzat.
 Iñaki!,
 Entzun, arren, zaguzu
 Eta gure emaitza artu!

Biotza
 Ipuzkarrak
 Jayotzetik
 Demazu:
 Zurea da
 Berea

Zaizazu
 Jaun-Goikoa,
 Zaizazu
 Lege-Zarra
 Etsaien
 Aurrean zuk
 Agindu
 Ipuzkarra...

Gudean sarturik
 Expatea artuta
 Ipuzkarren alde
 Gaizto ta etsaya
 Zeruko indarrakin
 Zatitu osoro ta...
 Beti Zoriontsuba Ipuzkoa
 [izango da
 Zuk, Iñaki, zaituta!]

Bost zatitan banatu euskun olerkariak ereserki txai-ro au. Martxa jakiñaren doiñuari zeatz eta egoki yago-kona da. Kementsu ta bipil biribildua lenengo bertsoetik azkenera. Iñaki nor dan adierazten dauksu aurrenik: Jainkoak berak bialdu dau mundura, Kristo'ren gudarien Buru izatera. Euskalduna da odolez ta jaiotzez, eta auxa aukeratu dau Goikoak Euzko lurrean bere Semearen jarraillleen Buru izan zedin.

Bigarren, Gernika'ko Zugatza dakarsku gogora: ango Batzarrak, Bizkai erriak autetsi eban Jainkoak bialduta-ko Iñaki bizkaitarren Jagole, Zaindari ta Jaun ona, egi-azki. Zaindariai otoitz eta erregu egin oi yake, ta opa-riak eskeiñi: entzun zuk, arren, Iñaki Deuna, gure es-kariak eta artu gure eskintzak. Erriaren biotz-aienak dira.

Irugarren, gure opea zein dan erakusten dau: geure biotza oso-osorik, ezertxo be gorde barik; bereak dira baita euskaldun baso, mendi, ibai, arruak be, or dozu dana, Bizkaia'k daukan guztia. Zeru-goitik zuk jagon ta zaindu, otoi, Bizkai osoa!

Laugarren, zer jagon bear dauan diñotsa berezi-berezi: Jaungoikoa aurrenik, gure fedea; Jainko barik ez dau Arana-Goiri'k Euzkadi'rik gura. Jagon bei ondoren gure Lagi-Zarra, au da, gure foruak, gure antxiñako buru-jabetasuna: arerio aurrean zeuk agindu, Iñaki zeuk eroan zabal-zabalik gure Ikurriña etsaien aurkako liskar latzean. Emen ez dogu nai ez fede bakorik, ez aberri etsairik. Au zaintzeko, zeu zaitugu buru. Emen bizkaitarrok beti gertu, izkilloturik, ezpata artuta...

Bostgarrenez, orrela egiñik, Bizkaia'k ondorioz izango dauan bakea, alkartasuna, zoriona aipatzen ditu. Zuk zainduta, Iñaki, zoriontsu izango da Bizkaia!

Ereserki au, 1895'neko garillaren 10'an egiña dala diñosku K. Eleizalde'k eta urte ta illa berean, 14'garrenean, Bilbao'ko «Euskeldun Batzokija»-k abestu eban lenengoz, Begoña'ko eleizan.

Ikus: *Baserritarra*, 14'garren zenbakia, 1897-garilla-31.

VIII

ITXARKUNDIA (GOIZ-ABESTIJA)

Poesia ezta, adimenak eta naimenak sortutako adierazgarri baten bitartez, bakotxak norbere barrua, poz eta kezka, argitan erdi jartea. Olerkian gizonak, beste erti guztietan lez, gizona billatzen dau. Nik, berak, olermenari eragiñik, neurtitz bat osotu dagidanean, neuk barne-barnean daroadan ezpirituzko suaz jabetu nai ditut nire lanaren irakurleak be. Nire sorpenak zirkin dargiola gizarteari. Zerbait, nire barrutik erne ta jalgi dana dozu, nire nai-indarra zapartaka. Ta gizartera doa. Erantzunkizun aundia dau, beraz ertilariak, poetak atan be. Naitaez jakin bear dautzu olerkariak, noraiñoko kementa ezarri dautson erne-azo dauan naimen-txinpartak: gizarte-kemen berezia nunbait. Ertilariak gizarteari mesede aundia egin leio, baita kalte galgarria be.

Arana'k bertsoz eskolatu ta adorez jantzi nai izan eban erria, euskal erria. Lo ekusan, lozorro betean; aurki. Ortik «Itxarkundia» deritxon abesti au, txorien goizetikoa lez, euskal erri lokartua iratzartu zedin.

Goiz-abesti baiño martxa geiago dirudi iru aapaldi-ko lantxo onek, bai osotu zanean eta bai gaur be erriak

gogotsu kanta oi dauan onek. Azken gudaldian auxe ta «Euzko gudariak gara» izan ziran guk geienen abesten genduzanak. Bigarren au erri kantaz, ots. «Atzo Bilbon nenguan / ta gaur Bitorian» doiñuz abestu oi dogun lez, Arana'k bere Itxarkundia beste onen musikaz ondu eban:

*Elexara juan eta
belauniko jarri:
lenengoko orazioa
nere maitiari.*

*Elexan eta kanpuan
zu beti zara neuria,
aingerua, zerutik jatsia.*

1895,neko maiatzean egiña da. Kantuak onela diño:

*Azkatasun-eguzkija
basotik urtenda,
bere argija edonun
arin zabaltzen da.*

Ez dakit, irakurle, bagillerantza edo, eguzkiaren agertzerik ikuskatu dozun, mendi-gaillur batetik bear bada, edo-ta itxasaldeko erritxo batetik: ni Elantxobe'n, olako eguzki-urtete zoragarriak ikusia nozu. Arana'k itxura danez, ikusi eban olakoren bat. Origaitik diño: «Azkatasun-eguzkija...» Eta bat-batetan errepika, bizkaitarrak oro bere barruko sorgin-pozez jabetu nairik:

*Itxartu zaiz, bizkaitarrak,
aupa, euzkeldun gustijak,
Gora, gora aintzañeko Lagijak!*

Gaur parra-parra dantzugun gora! asperen au, atsegin yakon Aranari; ez eban idatzi *bizi bedi!*, gora! baiño. Gartsuago bait da. Errepika au ederto biribildua dozu, barne-indarrez eta gora-nai biziz sutua. Aldatz-gora da-

kusgula dirudi astrapaladan doan bizkaitar talde betea.
Birikak sendo arnas-artuz gero!

Ixillik apur baten. Zer dantzuzue? Guda-zantzuak,
irrintziak ...

*Ixillik ba-zagoz danok
zer dozube entzuten
Ara gaur guda santsuak
gaitezan deituten.*

Itamuan dago Aberria; arerio ta izterbegiz inguratuta.
Azka daigun dagitsoen moltzotik. Arana'k bizkaitar guz-
tiai: «Itxartu zaiz, bizkaitarrak!»

Goizean goiz jagi dan eguzkiak gorri dauko arpegia.
Aberria jagon nairik, euzko gudariak jariongo daben
odolak gorriago egingo dauz gure mendiak. Adi:

*Arpegia gorrituta
darakus euzkijak:
gorriagotuko dira
bertoko mendiak.*

Bai, bizkaitarrak! Itxar zaiteze. Esna, otoi, euskal-
dunak! Merezi dau Aberriak zuen buru-ukapena.

Edu ontakoak dituzu Arana'k arrotz-kantak itxi ta
geure oizko doiñutan egiñiko abestiak, gure erriak ez-
tarri-zoli iñoiz aspertzeka abestu ditunak. Ez, esan dogu,
ez eban gura belarri-mintzak zauritzen dabezan erbeste-
kanta loirik, taberna ta kaleetan orduan —gaur ez
ete?— kantetan zanik. Abertzaleen artean batez be aben-
da-kanta jatorrak nai zituan, garbiak, izki ta doiñu erri-
koiak. Batzoki ta errietako batzarretan berariz, abesti
garbal, duin, gurenak beitez. Orduan etzan, tamalez, ain-
beste olako kantarik, geroago, Muxika'ko Urretxindorrak

eta, naikoa ugaritu dabezan arren. Arana'renak, gozo ta eder, erriaren biotz-odoletik erneak dira. Ba-eban sua «Itxartu zaiz...» idatzi ebanak.

Ikus: *Baserritarra*, 14'garren zenbakia 1897-garilla-31; eta *Aberri*, 1907-garilla-13.

* * *

«Amayera berdinduaren zerbait esango det. Erdere-tan, gazteleraz beintzat, amayera berdinduak edo bi aldiz itz bat aterata edo itz-josi bien zati berdin berarekin egi-tea *ripio* izena duen akats bat da. Erderaz neurtitz ba-tek *solamente* itzarekin amaitu ta kidekoa *sosamente*'rekin egite uts bat da, naiz eta amayerak ain berdiñak izan.

«Ez al litzake euskal olerkietan arau ori ere gorde bear? Nere ustea bayezkoan dago, ta noizbait edo nor-baitzuek gorde ote duten edo.

«Euskal olerkari geyenak ez dute, baña, ori betetzen». (*Ibidem*, 84 orr.).

IX

LENAGA IL!

Arana'ren poesi-lanik ederrenetarikoa. 1895'neko azilean atxillo egoan Larrinaga espetxean: ementxe osotu eban olerki au. Triste ta sentikor damoskuz bere bioz-kadak lau estrofa garbal oneitan. Auxe ta «Mendiko negarra» dituzu aren poemetatik sakon somakorrenak. Poeta ernai baten antzera diardu. Inun agertzekotan biotan agertu be egiten yaku Arana'ren buru-ukapen betea, au da, Aberriari eskiñi eutson opari odoltsua. Barruan borbor ebilkion xedea aurrera eroan egian, euzko-ikurriña —Larrazabal'en ain zuzen— aizetara inarrosi ebanetik, arerio zitalak asi yakozan, etxeko ta arrotz, aurka egin gurarik. Ak otsegiñakaz ez etozan danak bat; danak ez eben eritxi bardiña, ta burruka latza sortu zan lenengo unetik.

Ak argiro ikusten eban asmoa beste askok orrela ez ikusten; onek urratzen eutson biotza, odoletan jarteraiño. Eta olantxe, bide zakarrez, ekin eutson aspertu bari abertzaletasunaren susterrak sakontzen. Egia esan, ba-zituan laguntzaille ta jarraile onak be, baita ardurarik ezak eta ixeka egitsoenak be. Ak, oster, dana emotsan Aberriari: adiskideak, dirua, azkatasuna, osasuna,

bizia. Iñoizka oldozkun baltzak etorkozan burura; alpe-
rrikoak ez ete ziran buru-ukapen guztio? Oldozkun
onek garraztu oi eutsozan espetxeko egunak. Orduantxe
aragitu eban olerki au:

*Ze ikusten dabe / neure begijak?
Au danau dakust / galduta:
beresi, baso, / muru ta mendi,
uri, baserri / ta dana...
gaur maketuak, / saloberiok,
ara birrindu / dabela!
Il nayago dot / ikusi baño
Aberrijaren / amaya!*

Buru-ukatze ikaragarria, bai, Arana'rena! Morroillo-
peko burdin lodi artetik Pagasarri ta Ganekogorta mui-
ñoak begiz eta Euzkadi osoa idurimenez ikusiz, dana
agertzen yako galduta! Ilzori gorrian dago Aberria, ta
arek gurago dau iltea Aberriaren azkena ikusi baño.
Biotz-ondotik datorkion garraxia, ziñez:

*Il nayako dot / ikusi baño
Aberrijaren amaya!*

Oiu gordiña! Arana'ren izate-barnenetik urtena! Kin-
ka larri ortan asaben gomutea jarten yako gogoan: areik
bai gizonak! Gaur euskaldunak, arein ekandu garbi
bikaiñak bazter itxita, erbestetarrenez ornidu dira. Jau-
na! Jauna! Burubakuok iratzarri nairik, diño:

*Noz euzkeldunak / Jaungoikua'ren
ixen deuna aiztu / len eben?
Orain motzak lez / loituten dabe
loidun erderaz / egiten;
ekandu onak / itxita, baltzak*

artu ditube / gaur emen.
Goiko Jaun ona, / erruki zadi
aiztu zabeno!, / bai, arren!

Eziña da, eztan lekuan, galdua aurkitzea. Erri-doiak, bein suntsitu naiz galdu ezker, nekez be nekez ber-ido-roko. Ikus gurea lango erri-aldeetan jazotarikoa: izkuntza, adibidez, erriak galdu ba'dagi, zelan barriro aren mintzoa arrunt biurtuko? Askorentzat eziña izana, guretzat errez-aisa bear bada?

Esadazube, / euzkeldunak, ba,
nun diran zuben / erriak.
Eztira agertzen / inun inunbez
zuben asaben / lagijak;
motzak sartuta / zuben etxion
dira amen jabe / nausijak.
Ez esan inoz / mendi onek, ba,
dirala zuben / mendijak!

Arana'k darrai:

Erri gaxua! / Jayo nintzan ni
zeure il-orduban / eltzeko?
Zegaitik, Ama, / zeure semiok
eztira itxartzen / ondiño?
Ama, ilgo zara / motzen azpijan?
Ilgo zara zeu / betiko?
Itxaron, Ama, / jarijon biot
neure odol au / lenengo!

Aapaldi kementsu! Ama gaxua il-agiñean; olerkaria, oindiño gazte: ezin gorrian aren iltamua ikusiko ete? Zure semeak, zergaitik ez dira itxartzen? Ez al dago amarentzat osakairik? Ama!, etsaien azpian ilgo zara! Aberri!, zer dagizu?

Euzkoak lo, ez dira itxartzen... Arana'k, beraz, bere buru-ukapena azkeneraiño daroa. Aberria iltzear... ale-giñak oro alperrik, utsaren urrengo. Zer diño? «Itxaron, Ama», arnasa pizkat oindiño; ez il oindiñokarren... Lenago «jarion biot —diño Arana'k— neure odola», Buru-eskintza osoa. Ez dirautso geiago ez iltekorik; ezta, ez-tau nai aren seme-alabak ingurumari jarterik be, Aberria salbetako. Alanbearrez il bear dau, Jainkoaren naia orixe da-ta. Aurretik, baiña, berak bere buruaren eskin-tza gurena ebagi bear dautzu. Aberriaren alde dana emon, baita ondoren zu, Aberri!, betiko ilda be.

Gisa orretan il zan Sabino, abertzaletasunaren garai-penik ikusteke. Berak kementsu —ames apika?— erein-dako azia erne, ugaritu ta loratzen ikusi barik. Geie-nik orixe izan oi da gizaseme gurenen zoria; dana emon ondoren, eriotza, emonaren frutu joriak ikusi ta txasta-tu bage. Zuk ba al dakizu zeure azkatasuna, zeure gaz-tetasuna, geure geroa Aberriaren alde eskintzen? Baiez-koan, or Arana eredu goragarri.

Urretxutar seme argi Iparragirre'ren:

Ara nun diran / mendi maitiak!

Ara nun diran / zelaiak!

lez abestuten da.

Ikus: *Baserritarra*, 15'garren zenbakia, 1897-agorri-lla-8.

X

BEGOÑA'KO IXAR ZERUTARRARI

Etzan nekatzen Arana-Goiri Jainkoari ta Andra Mariari kantatuz, erea egokitu-ala ustu eroian barrua goitar neurtitzetan.

Azaldu nai dogun abesti onek zazpi aapaldi daukaz, Begoña'ko Amaren omenez urkulutuak, trebe ta jasez atan be, zortziko nausitan: 1895'neko garillean egiñak. Edesti ta eskabidez apainduta, ziur asko. Dei dagitse bizkaitarrai batez be Amaren oiñetara; beronen inguruan belauniko, erregu gozotan ikusi nai ditu. Gaurko Bizkaia, tamalez, ezta lengoa; bein bateko lege, ekandu, izkuntza ta gaiñerakoak aldatuak dira, zati aundi bat. Erruki zakiguz, Ama! Gorde, arren, Bizkaia! Eten baita semeok loturik daukezan arrotzestuntzak! Irakur olerkia.

*Bizkai'ko mendi polit bateko
artadi illuntsu ta zarran,
gabez illargi betia legez,
agertu Andra-Miren zan.*

*Oña, baso ta bazter guztijok
bere arpegi ederrak
betetan euzan zeruko argiz,
danoi eskiñiz eskerrak.*

*Ordutik ona, lior ta itxasoz,
Miren-arpegi garbija,
aldi gustitan, da gustipontzat
goiko zorundun Ixarra.*

*Atoz, atoz, ba, bizkaitar onak,
Begoña'k daukan Artera:
zuben Ama ta Jaunguarena
bertan dagona Bera da.*

*Ama maitia, entzun eiguzu
geure bijotzen arrena:
zeuk emon ezik argija geuri,
oso itxutuko geu gara.*

*Gaurko Bizkai au, Ama laztana,
ezta antziñeko lakua:
len ekandu ta legija, ta gaur
abenda zarra galduta.*

*Zaindu gagixuz, geu bizkaitarrok...
Erruki, Ama, zakigu!
Eta estuntza gogor-gogorrok
zeure semioi azkatu.*

Arana'ren lan eder artean, kondairazkoa ezta txikiena. Aren idatzi zeatz jakingarrietatik agiri danez, sakonki ezagutzen ebazan gure edestiaren orrialdeak. Maite eban Begoña'ko Ama; onen edestia aztertu ta sakonazia eukan. Ba-ekian gaiñera Bizkai Jaurerriak zelako maitasuna eutson, Gernika'k sarri erakutsi bait eban bere Batzarretan Maria'ganako eraspen gartsua. Bizkai'ko Jaurerriko Batzar Nagusiak, Gernika'ko Arbolapean, 1738'ko garagarrillaren 18'an, onela adierazo eban: «Jaurerri prestu onek Begoña'ko Andra Maria'ri beti ta aldio-

ro agertu izan dautson gorengo oneraspena ta maitasun sakona gogoan izanik, bere Zaindaritzat artzea, erabagiten dau».

Bizkaitarrak, ain zuzen be, aspaldiko gizaldietatik biotzetan ondo barrenduta erioen Begoña'ko Amagazko maitasun-lerak ortxe Begoña'ko santutegi inguruan dir-dir dagi oraindik be. Erdi Aroko bizkaitar semeen goraberak, alderdikerien burruka ta eztabaidak, itxasgizon, lugin, baserritar, artzain eta enparau guztiak ortxe, Begoña'ko Amaren oiñetan auspeztu ziran; ezbear eta zorritxarretan lez, pozaldi ta egun oparotsuetan be, Andra Maria'gana zuzentzen ziran, seme-alabak ustetsu amagana jo oi dabenez. Ama orrek, jakiña, beti artzen zituan, eta gaur be artzen gaitu, bere Seme Salbatzailleagaz batera, txeratsu ta maitasunez gaiñezka.

On, eder eta egoki zan, beraz, Eleizeak be zaindaritza ori onartu ta baiak emotea. Orrela egin zan. Erroma'ko Aita Santu Pi X'garrenak, 1903'neko jorraiillaren 22'an, idazki bereziz Begoña'ko Andra Maria Bizkaiaren Zaindari Nagusitzat izentatu eban. Aurtengo udazkenez, itzaldi, bederatziurren eta jai, aundikiro ospatu izan da jazoera orren 75'garren urteurrena (1978).

Adi au be. Sabin'ek bere eritxia eban Begoña'ko Amari buruz, 1894'an *Bizkaitarra* aldizkarian adierazo euskunez. Maria'ri dautsagun eraspenak beronen misterioetan dau oiñarria. Andra Maria'ren zerura Jasokundea, adibidez, amasei-amazazpi eleizatan ospatzen da Bizkaia'n; Araba'n ia bardin. Begoña'ko Amaren jaia be dagonillaren 15'an egin oi da, guztiz aundikiro.

Arana'k ez eban ori nai. Jai bi dira arentzat: bata Begoña'ko Amarena ta Jasokunde egunekoa bestea. Gaur, naiz-ta eleiz-egutegian —zergaitik ete?— agertu ez, orrela dagigu: dagonillean, 15'an, Jasokunde egunekoa ta urrillaren 11'an Begoñakoarena. Arana'ek ez ebazan nas-

tau gura jai biok, eta etxakozan atsegin abuztuaren 15'an Begoña'ra izlari etozanak, Jasokundea aitatu ta Begoña' ko Amatzaz tautik esan ez eroelako.

Alan eta guzti be, Begoña'ko Andra Mari'ren irudia, jausi-barri dan edurra baizen zuria, izan da ezpairik bage, gizaldiak zear bizkaitarrak erabat eta bilbotarrak berariz ainbat mirariz ta mesedez bete dauzana. Gaur Begoña'n altara nagusi gaiñean, argiz ta loraz apain, Jainko-Amaren irudia dago, Kristo Salbatzaillea altzoan daukala: biak Bizkai'ra begira. Artagan'en aurkitutako irudia Jainkoaren Amarena zan. Begoña'ko eleiza nausia, barriz —Arana'k diñosku—, X'garren gizaldiaren lenengoetan eregi ta Andra Maria'ri bere Jasokundean opatua. Begoña'ko Amaren irudia, bestetik, Jainko-Ama ordezten dauskuna, bere ustez, Orduña'n, Lekeitio'n eta Bizkai'ko beste toki batzuetan Antigua'ko Ama deritxonaren antz-antzekoa dozu.

Ikus: *Baseritarra*, 16'garren zenbakia, 1897-agorri-lla-15.

XI

DEUN-ANDONI'REN ERANTZUKINTZEA

Sabin'ek, gaixo samar ebillela-ta, osagilleen aginduz, aldikadak emoten zituan Sukarrieta'n. Toki zoragarria benetan! Laida, Txatxarramendi, urez ta ugartetxoz bleiblei. Bertan bizi izateko asmoz, Andoni Deunaren eleizatxo ondoan, «Abiña» baserriari egokiozan lurrak erosi ebazan, baita Doniandere ugartea be. Eleizatxo onetan ezkondu zan Atxikallende ta Iturri'tar Nikolasa'gaz, 1900'neko otsaillaren 2'an. Berezkoa danez eraspen aundia eutson bazter ixiltzu oni. Sarri abestu oi ziran bertan Andoni deunaren gorespenak. Ortarako osotu eban olerkitxo au, 1899-VI-13'an.

Iru zati daukaz. Lenengoan Irutasun Deunari deiez dago olerkaria, Andoni doneak bere egitadakaz Ari damotson aintza gogoratuaz:

*Aintza Aiteari
ta Semiari,
Goteunari be
batera:
Andoni Deunak*

*bere egipen eder deunetan
emoten dautsen
aintzea.*

Bigarren Santuaren mirari ta alatzak aitatzten:

*Donoki-indarra
billetan bozu,
aor erijotz,
itxukeri illun,
usteri loi ta zoritxarra,
baita Gotzaiztua ber-bera,
Andoni'gandik
iñesten,
gexuak arin
bizkortzen,
estuntza aztunak azkatuten
ta baretuten
beinguan
itxasua be...
Goyan daukan almen andija
Andoni'k olan
darakus.*

Orrezaz gaiñ, ba-ditu beste doe batzuk be: gorputzak osatu, gauza galduak aurkitu, galbideak aldendu, neke zarrak uxatu... Ona Arana'k:

*Gorputzaren zati gexorik
ala gauzaren bat-edo-bat
galduta daben
gaste nai zarrak,
Deunari eskatu ezkerro,*

artu oi dabe
osorik.
Galbide ilgorrak
aldendu
ta neke zarrak
kendu daroyaz
Andoni'k.

Ikus: *El Correo Vasco*, 1899-bagilla-13.


* * *

«Urte asko ez dala barriztau zan Andoni Deunaren eleixatxoa Abiña'n. Gaur joera eundia dau jenteak bertara: udan ondartzara datozenetatik gitxi geratuko dira ona «Gure Aita» bat beñik-bein esatera urreratu barik.

«San Antonio Lisboa'n jaio zan, eta Padua'n il. Aren amaren ama ementxe jaio zan, diñoenez, San-Ander parrokiko eleiztar izanik.

«Bein, Prantzia'ko Tolosa'n itzaldiak egiten aurkitzen zala, negusiak aginduta Padua'ra zuzendu aurretik, bere amamaren jaiotetxea ikusten etorri zan onaxe; berton egun bi igaro ondoren, Urkiola'tik zear itzuli zan Tolosa'ra ta andik Padua'ra. An il zan 1231'an. Laster orduko Aita Santu Gregorio IX'garrenak altaretara jaso bear izan eban, erri osoak, ots, mundu osoak, eskatuta».

(A. Onaindia, *Lamiñak*, 1978, 115 orr.).



Begoña. Andra Mari, Bizkaiko Zaindarien eliza ederra. Argazki hau, 1895-VII-14'an, «Euskeldun-Batzokija»-ren lehenengo urte-urrenean ateratakoa da.

XII

JOSU'REN BIJOTZARI ABESTIJA

Jainkozale porrokatua zanez, oneraspen egiazkoa
eutson Jesus'en Biotzari be. Gogoz esku artu oi eban,
bagillean, gure errietan ospatzen ziran Josu-Biotzaren
omenezko bederatziurren eta eleizkizunetan. Bilbao
urian, baita kaleetan be, sarri entzuna eban erderazko
«Corazón Santo» abestia. Euskeraz entzun nai eban be-
rau, ta ondorengo aapaldiak ñirñirtu euskuzan. Onela
diño asierako leloak:

*Josu'ren Bijotz
gustiz Deuna,
geure Jauna Zeu
utzik zara.*

Jarraian datoz bederatzi aapaldi lau bertsodun, onela:
5/5, 5/4. Neurritz oso-osorik eta rimaz ez txarto.

*Bizkai gustiko / euzkeldun onak
kistar zinduak, / gaur etorri,
zuben bijotzak / emen eskintzen
Jaungoikoaren / Bijotzari.*

Dei ostean, gomutarazten dau Kristok artu eban ne-
kezko edontziaren garratza, odol-izerdiz naste. Ona:

*Goguan dogu / Zuk artu zendun
neke-ontzija / geure aldez,
Bijotza estu, / zanak etenda,
odol-ixertza / ta negarrez.*

Gizaditik illuna uxaldu ta aizeatzearen, Gurutzean
il zan Kristo, Biotz Doneak eukan odola, geure aldez,
osorik jarioaz.

*Gu obendijok / gaizkatuteko,
Josu maitia, / untzau ziñan:
ta bijotz orren / ur-odola, be,
jarijon zendun / gurutzian.*

Etzan orregaz ase-bete; geiago: egiazko maitasuna
agertuz, altaretan lotu yakun geure janari ta edari biur-
turik.

*Olan iltziaz / etzan bez ase
Bijotz on orren / maitasuna:
ogi ta ardao / iduripian
egin zatzaku / or laguna.*

Oar: *bez* = bere ez; *zatzaku* = zaiaku, yaku.

Kristo gugaitik il zanarren, gu, esker txarreko, aren
aurka gabiltz: ez ditugu Ak esanak bete nai. Ez, Maita-
suna ezta maitatua.

*Geugaitik eta / geure aldez be,
Jaun maitekorra, / Zeu il zara;
Zeugaitik, baña, / zeure kaltez, geu
bijotz-bakuok / bixi gara.*

Bertatik eskabidea: Kristok garbitu daizala gure loiak,
obenak kendu, aratz jarririk gure gogosk.

*Zure bijotza / gartzen dan suban
artu gure loi / ta gaxuok:
gar-utz orrekin / obena ketu,
garbitu, arren, / bai! goguok.*

Kristok biotzean daroan sua ezta inoiz itzaliko; laba
orretan sar beiz euskaldunon biotzak be; orrelan, «noz-
edo-noz», suak artuko al ditu! Kristorenak opa induzan
olerkariak.

*Bijotzan dozun / maitasun-suba
amatauko inoz / eztalako,
eutsi geuriok / berton sartuta,
noz-edo-noz or / su-artzeko.*

Eskari ontan Arana'k Bizkaira itzulirik daukaz be-
giak. Jesus'i be, Bizkaira biurtu daizala diñotso begiak,
gure erria alik bizkorren askatu daiten gatzetik.

*Zeure bigijok, / Josu laztana,
bigurtu, arren, / Bizkaya'ri:
gatzetik bijotz / orrek askatu
ta zeugaz lotu / laster begi.*

Atzenez, Aberri gomuta. Jainkoak beti dauz belarriak
makur, otoitz apala entzuteko. Entzun daiala, ba, eskari
bero au be. Arana'k, euskaldun biotzak oro nai ditu
Josu'ren Biotzaren biran, maitasunezko txinpart-urtika.
Goitar laguntzaz bakarrik gaizkatuko da Aberria.

*Jauna, Zeu maite / gura zaitugu:
gura-ixan, ba, Zeuk / eskarijau:
euzkeldun danak / maite zaigula
gaizkatuteko / Aberrija.*

Maixuki txukundutako aapaldiak. Eurotako bako-
txean gogapen bat jalgi ta urkultzen dau, ederto asko.
Bakotxak daukana emoten; Arana'k, naiz Andra Ma-
ria'ri naiz Kristo'ri, biotzean ekarrena axe adierazo eutson
neurtitz-ari dardaratietan.

Ikus: *El Correo Vasco*, 1899-bagilla-16.



**Sukarrieta'n, Sabin bizi izan zan etxeak dauka
oindiño be Josu-Biotzaren burdin-azal au.**

XIII

ITXASOKO IXARRARI

Kantua, txikientzat naiz nausientzat, ezi-biderik ederrrenetarikoa da. Erlijioarako be bardin, zerbitzu bikainak egin ditu mendeen mendetan, eta egingo ere bai. Kantu-zale dituzu umeak; baita gazte ta zarrak be, Euskalerrian berariz, geienik abost ederreko erraza bait gara.

Oraintsu arte eleizetako kanta ta abestiak latinez izan dira erabat, mezakoak eta eleizkizun batzuetakoak. Gaur, oster, bakotxak bere izkuntzan egin daikeguz otoitzak, mezak, liturji orduak eta abar. Orainetan latina izan bada be Eleizearen izkuntza berezi, aurrerantzean erri bakoitxak berean Jainkoa goretsi al izango dau.

Leenago, eleizetako kantu aparta San Gregoriorena deritxona genduan, gregoriar kantua, egera geienik; beronek burutu oi eban uzkurtz musikaren arterik adierazgarriena, uts eta soilla; eleiz-oikun edo-ta liturji-bearkun guztiak egoki, aundikiro ta zabal bete oi zituan beronek. Gaur be oindiño abat-etxe edo eleiza batera urreratzean, eta gregoriar kantua entzun, olako zoramenaren mende errez jausi oi gaituzu.

Eleiz liturjiak latinez erabili dituan kanta artetik, eztau indar urriena izan «Ave, maris stella» Andra Maria'ren omenezko goratzarreak: gure artean batez be, Maria'ren jaietan, bezpera ta gaiñetiko, eten barik abestua. Zazpi estrofa daukaz ereserki onek; ez dau azken-oskidetasunik, ez bardin amaitzerik, baiña ba-dau eres-azentua barne-eragin bizikoa. Bernardo Deunarena dala iñoiz esan da, baita Benanzio Fortunato santuarena be; ziur ez dakigu, alan be, norena danik. Daukan melodia, eresdoiña guztiz ezaguna gure artean, abesten zan antxiña bateko misterio-jaietan be.

Sarritan entzun eban, antza, Arana-Goiri'k, lateraz jakina. Eta ak, euskeraz entzun nairik, euskerara biurtu euskun. Ona euskeraz ta latinez.

*Agur, Jaunan Ama,
itxasoko Ixarra,
beti neskutz eder,
Goi-ate bakarra.*

*Ave, maris stella,
Dei Mater alma,
Atque semper Virgo,
Felix caeli porta.*

*Gotzonaren aboz
Ama ixena autetsi,
Eme'ren ordian;
zoruna ekarri.*

*Sumens illud Ave
Gabrielis ore,
Funda nos in pace,
Mutans Hevae nomen.*

*Estuntzeak ausi,
itxubak argitu,
kendu guri gatzak,
ona ekarguzu.*

*Solve vincla reis,
Profer lumen caecis,
Mala nostra pelle,
Bona cuncta posce.*

*Amatzat agiri:
artu beiz arrenak
geugaitik jayo ta
Semetzat dozunak.*

*Monstra te esse matrem:
Sumat per te preces
Qui, pro nobis natus,
Tulit esse tuus.*

*Idebako neskutz,
neskutz garbijena,
garbitu gagixuz
obena aldenduta.*

*Virgo singularis,
Inter omnes mitis,
Nos culpis solutos
Mites fac et castos.*

*Bixitza on gertu
ia bidia sendo,
gu, Josu ikusirik,
poz beti ixateko.*

*Vitam praesta puram,
Iter para tutum:
Ut videntes Jesum
Semper collaetemur.*

*Aintza Jaun-Aitari,
Kisto'ri be aintza,
Goteunari bardin:
Irurai batera.*

*Sit laus Deo Patri,
Summo Christo decus,
Spiritui Sancto,
Tribus honor unus.*

Latitarrak, esanda itxi dogunez, oin-bitartez neurtu ebezan bertsoak, ainbat joko egiñik tarteka. Ereserki zar au, «Vitam praesta puram» esate baterako, koreo itifalikuan idatzita dago, ots, sei silaba daroaz bakotxak; koreo naiz trokeo neurriak luze bat eta labur bat daukez, azentu berezia bostgarren silaban arturik. Latíñezko ereserki ta goratzarre askok azken oskidetsua dauken arren, onek ez dauka rimarik.

Arana'ren itzulpena trebeki eginda daukagu. Orixe'k be, bere «Urte guztiko Meza ta Bezperak» liburuan dakar; alkar jo eizuz itzulpenok, eta zeuk esan zein deritxozun onena. Itz barriren batzuk, bear bada, mindu ta zipertuko dauz zure belarriak. Ba-ditu olakoak: «Gotzon», «neskutz», «Eme» Eba'ren orde, «Kisto», «Goteun» eta besteak; gaur edonok dakizanak noski, eta edozein iztegitan, baita «modernuetan» be, datozenak.

Ikus: *El Correo Vasco*, 1899-dagonilla-21; *Aberri*, 1907-garilla-13.

«MUGARRA BEGIRARIA»

Eltzegor'ena

«Ona, iya eunenbat orrialdetan —diñosku J. M. Leizaola'k—, erbesteratu abertzale baten abesti biyoztia. Bizkayeraz egiña, gipuzkoar guztiz ondo ulertu dezaketen eran idatziya.

«Jator, jator, jator; orra olerki ontan oartzen degun arnas eta odola. Arnas eta odola garbiak ez al dira osasunaren ezaguera ber-bera? Arnas eta odola garbiak ez al dira Mugarra'ren sendotasuna gure erriari emango diyenak?

«Anas eta odola garbiak ain maitekor emandako gudarriak, Agirre, Galindez eta oinperatu guztien alde ari izandako euskal apaizak eskeintzan aitatzen ditu ereduz bezela olerkari onek.

«Aberriya barren-barrenen darama erbesteratutako abertzale onek. Ta badaki erbesteratzearekin urteak igaroaz, azkenean, aita- seme atzerrituak abizenetan euskaldun jatoriya aitortzen ba dute, aberriyaren izaera galduta izaten dutela...

«Gai ori zabalduaz, ez det uste iñoiz gutun ontan datorren «Erbestean» olerkiaren aldekorik egin danik. Sabin'en «Mendiko negara»'ren alako bat da.

«Etzait ere gogoratzen «Gernika'ren erreketeta zitala abesteko emengo «Gernika'rena bezelakorik». (*Ibidem*, 294 orr.).

XIV

BOGA, BOGA!

Bost aldiz esana dogu: Arana'ren asmoetan bat an-txiñako euskal kantanak soiñeko barriz jaztea zan. «Boga, boga!» itxas-ertzetan ezezen, lior barrukoak be, edozein ospakizunetan, iztarri-zoli kanta oi da. Abandotarrak ondoren datorkizun izkia ipiñi eutson, asieran eta amaieran errepika bigaz ederturik. Ona lenengoa:

*Boga, boga,
arrantzale!
Boga!*

Jarraika erneten len-aapaldia. Itxas-egiterakoan daukaguzan aizeak ez dira egoki-egokiak: erbestera geroz gu, ta onantza dakarrez arrotzak, len geurea utsik zan erria erbestekoz beterik.

*España-axiak
ba-garuaz
danok, bai, atera.
Berak dakaz bertorantz
España'n semiak:
geuria zan urija
geuretzat oin ezta.*

Atxon (usain) gozotan azi zan euskoa. Orain, ito-bea-
rrik, urriñerantz bide-dagi aize atsituak bultzatuta. Eztau
olan Aberririk ikusi nai.

*Atxon artian
azi nintzan,
ene uri maitia!
Orain zeugandik nua
urrun-urrunera;
olan zu ikusi baño,
zu ikusi ez, oba.*

Biurtuko dira ostera be; baiña onerakoan, zu arro-
tzena ba'zara, iruntsi zaizala urak, gaixo ori! Ez zaitu-
gu iñoren agindu ta mendeko ikusi gura.

*Ostera be gu
etortzian,
motzena ba-zara...
Urak iruntsi zaike
danori, gaxua,
zu guk aurkitu barik
motzak menbetuta.*

Azkenez, amai-errepika, asieraren pareko:

*Agur, agur!
Boga!
Maitia, agur!*

Erri-kanta, «Boga, boga, mariñela» lez abestuten.

Ikus: *La Patria*, 1902-iraila-7.

XV

GOIXEKO IXARRA

Maitasuna izadiaren lege nagusi. Ezkutuzko lege orrek zuzenazten dau goi ta be dana; kizi ta apur pitiñenetik errazoidun gizakiaganañoko guztia, maitasunak darabil, indar ixil batek «kosmos» deritxogun gauzadia darabillen lez. Guzurra ete diñokegu munduaren ardatza dala autortzean? Zer guztien muiñean bera dozu leen arnasa. Maitasunak garoaz gorantza, Jainkoagana; maitasunak saka dagisku alboan dogun geideagana. Maitasunak sortzen dauskuz, beetik indarka, pentsamentu garde-nak eta biozkada sutsuak. Olerkia maitasuna da, edo obeto, maitasuna olerkia dogu. Olerkaria, zentzunak tarte-ko, bere izate barnera jatsi oi da: Lizardi; eta ixil gaz-telu orretan —Santa Teresa'ren zazpi egonlekuak— amestu ta eio daroaz bere lanik aintzagarrienak; ortxetik, arimaren ondar-ondarrean bilduta, atera oi ditu sorpenik bikain ausartenak.

Era ortan jokatu eban Arana-Goiri'k; era ortan oso-tuak ditugu aren neurtitz mota biak: aberkbia ta uzkur-tzazkoa. Aberkoiak, begira!, zelako sutan galdatuak dau-kazan; jainkozkoak orobat: siñismenak, izan be, eragin izugarria dau gure irudimenean.

Andra Maria'ri opatu eutson lantxo au itzez urri da
bear bada, baiña sen zugurrez astun; txikia, baiña biotz-
ikutuz jori, oparo. Iru aapaldi dira, errepika batekin.
Andra Maria'ren Jaiotegunekoa da, «Goizeko izarra»
erri-kanta lez abesteko egiña. Arin, eder doaz olerkaria-
ren gogapenak.

*Goxeko izarra, / gustiz argija,
Jaunan Ama da / geuretzako.
Eguzkitik lez / goxeko izarrak,
goitik argija /berak dauko.*

Eta bertatik errepika. Kantari asten da arimea, igarri
bage:

*Agur, argi garbi,
argi-egin geuri;
ekarri, ba,
Jaunan Ama,
eguzkija.*

So textu onen ingurua, barru daroan bero-giroz ase-
tua. Gabaz izarrak lenengo; goizaldera, baiña, eguzkia
sortaldetik goratzean, izarrak ezkutura, ezta arein ñirñi-
rrik ortzian. Bardin, Jaunaren aurretik dator ama; baiña
izarren atzetik eguzkia iduri, Andra Maria'ren ondoren
Kristo datorkizu.

*Eguzki-aurrez / izarra dua:
Jaunan aurretik / dator Ama.
Izar-atzetik / eguzki utza:
Miren-ostian / Josu Bera.
Agur, argi garbija...*

Gabaz izarrak egunari deika daukaguz. Maria, jaio aurretik eta gero, Jaunari deiez daukagu.

Egunan deyez / agiri ixarra:
Jaunaren deiez / Miren jayo.

Olerkiak, azkenez, beretzat nai dau argi orren izpitxo bat, bederen; Bizkaiarentzat, euskal erriarentzat, aldiro, fedez gartsu ta legez azke, menderen mendez bizi izan dakigun.

Ixar garbija, / otoi au entzun:
geuri be argi / egiteko.
Agur, argi-garbija...

Erruki zakiguze, bai, Izar ta Eguzki. Lagun zaiakuze, zoratu antzean garabiltzan aitu-ezin eta burrukak garaitu daiguzantzat.

Ikus: *La Patria*, 1902-irailla-7.



Arana Goiri'k egutegi bi egin ebazan, bata txikia eta bestea ormarakoa. Bigarren au, 1898'an lenengoz argitaratua, oso-oso ederra da. Ementxe dator, beste gauza bikain askoren artean, «Ixendegi Euzkotarra».

XVI

ENE AMA!

Illotsa. Ibiltari ernea zan Arana. Gaur eizan mendirik mendi, biar etxez etxe bazterretan euskal-itz bakanak eta abizenak batzen; ba-zituan ortarako adiskideak, laguntzeko beti gertu.

Legendika, edo Kanala, itxasertz gaintxoan kokatutako errixka txairoa dozu, Artia ta Laida bitartean, bide ardira lez ezker-eskuma edaturiko basetxe dotorez apaindua. Emen be Sukarrieta'n lez ba-zituan lagunak, eta eder yakon Sabin'i bertora etorri ta lagunarteko batzar aberkoiak eratzea.

Bein, 1897'neko iraillaren 8'an, Maria'ren Jaiotegunez atan be, meza nagusia eraspentsu eskiñi ta bazkari ederra egindakoa, euskaldunak olakoetan berezko bait dau kantua, abestuten asi zan Sabin bere lagunakin. Jazokun ortarako, aurretik apainduta, bertso-lan sentikor bat eroian prest: zernaiko zertzalada baliatu bear Aberri azia ereiteko. Ama zoragarri lez ikusten eban au, baiña guztiz geixo; erbeste-pean jausi zanetik zoritxararak eukan erpatzar artean.

Itzala benetan erbestepean egon bearra. Sabin'ek, alan be, beste zoritxar bat, aundiagoa, ekarren gogora:

Ama orrek sortutako semeak Amari bizia kentzen era-
goioen. Auxe zan beretzat sapore ta zorigatxik bizi-bi-
ziena, iraingarri ta iraunkorrena. Onela olerkiak, jai are-
tan lenengoz abestuak:

*Bixi ezta
ludi gustijan
ene Ama
baxen ederra, baña ez
ain gaxua.*

*Gustiz ederra
bera dalako,
erbeste-pian
jausi da...*

*Ara baita,
sortu dituzan
semiok, bai,
berari bixitza kentzen
dautsoela!*

Aberri eder baten semeak gara: uri, baserri, mendi,
zugatz, ibar, itxaso... Ederra dalako, baiña, arrotzak
mende artu dauskue. Eta etxekoak, ama maite ez dabe-
nak, oneik sartu dagitse batez be labain zorrotza bio-
tzean alderik alde.

Olerkiak iru atal duaz. Lenengoak bost bertso, iru
lauko, bost silabadun bat eta zortziko bat; bigarrenak
lau bertso daukaz, iru bosteko ta iruko bat; irugarrenak,
bost bertso, iru lauko, zortzi silabako bat eta beste bost
silabako bat. Ez da rima esatekorik.

Lantxo au, ondoren datozen beste guztiak lez, Ara-
na-Goiri ilda gero, aren paper artean agertutakoa da.

Ikus: *Patria*, 1904-epailla-13.

XVII

ABERTZALE BATEN NEGARRA

Ezta edonor gai inguruko zerak ikuspegi zabalez begiratzeko. Egoki, alan be, geure biran zer jazo ta gertatuz doan jakitea. Eguneroko zeaztasunak egiazko ardura sortu oi dauskue urkoaren naigabe ta min-oiñazeakaz obeto jabetu gaitezcan.

Gizasemeok, Home ingeles eder-zaleak aurtortzen dauanez, barne daroaguzan lera, griña ta irrutsak indar berezi bat dabe: artea batez be, zoramenaren eta biotzkararen izkuntza besterik ezta. Onek adierazo nai dau gure griña ta biotz-zauskadak adierazgarriak ditugula. Zantzu ta ikur-atz bereziak dabez kanpoan. Gogoak eta gorputzak alkarregaz dagie jokoa, sustraiki alkar batu-rik bait dagoz; lenengoaren zirkin naiz ikara baktotxak, ondoren ikus-gaikor bat laga daroa bigarrenean. Sentipenak bardin, neurri baten, adierazgarri dira; lerak sortzen dauan sentimentuari deritxogu *sentipena*, au da, lerak edo biotz-ikarak ez dauala zapuztu ta bertanbera itxi bear gogapena; ezta alderantziz be.

Sentikortasunaren erpiña zan Arana'ren biotz-muiña, Aberriari buruzko puntuetan batez be. Onen oiñaze ta

miñez jabetu zanetik, odol-jarioka eukon biotza: garrazi ta intziri-zotiñez, oska bizian. Edu orretan eundu zituan bertsorik asko. Baita urrengo au be.

Izena galdu dau euskaldunak: olan diño or zear. Euskaldunarenak egin dauala. Negar dagi abertzaleak:

*Euskeldunak:
galdu dogu ixena;
enda danak diño
eztala geyago euskeldunik!*

Zantzu larria! Izena galdu...! Nok eta euskaldunak! Lur-birako enda guztien artean garbi aratzenak! Azkena ez ete izena, nortasuna galtzea? Eta euskaldunak, zoritxar aundi!, bere izenari muzin egin dautso; galdua dau gai-xoak. Mendiak gorri-gorri dakusguz beragaitik; auzoko errialdeak, or arriturik, ixillik... pentsakor... lotsaz!!

*Mendi gustijak
ikusten dira
danak gorri-gorririk;
erri gustijak, bere,
dana ixil-ixillik*

Zoritxarpean zakustaz, Aberri! Galdua zara! Zeure semen itxikeriz, ai!, galdua!

*Euskeldunak:
egijaz esaten da
eztala, eztala
geyago euskeldunik!*

Ikus: *Patria*, 1904-epailla-19.

XVIII

AMA GOIKUARI

Gounod'en *Ave Maria* lez abesteko egiña. Sukarrietan' n abestu zan lenengoz, Abiña'ko Andoni deunaren ermitan, 1896'neko urtarrillean.

Iru zati ditu: 1) *Agurra*; 2) *Negarra*, eta 3) *Eskaria*.

1) *Agurra*

*Miren, agur, Ama,
Ama maitegarrija,
Bizkaya'ren Euzkija,
Jaunaren Ama laztana,
agur!*

Agur eztia! Ama dogu aurrenik Andra Maria, ta bere seme bizkaitarrok, otoitz egiterakoan, Ama maitegarri dabela dirautsoe. Bera da, bai, guk Bizkaia'n dogun Eguzki zabal distiatzaille. Orixe zara zu. Ama! Altsu benetan, Jaunaren Ama. Agur, ba, Ama laztan ori!

Jarraian datoz beste lau aapaldi. Maiatza eltzean, txoriak alkarren lei bizitan dabiltz abeslari; orrelaxe egingo dogu guk be, zure edertasuna goratuaz, Maria!

*Beresijetan / txori zolijak
abes-egiten / deutzunez:
geuk olan, Ama, / abestukoguz
zeure ederkunak / bijotzez.*

Zelaiak, larrak, muiñoak loraz bitxitu dira osorik. Lorok, Andra Maria-ri eskintzeko ez ete? Naiz-ta igarrak zuretzat, artu, Ama, gure biotzok!

*Larre orleyak / lora politik
eskintzen dautzuz / Orrilla'n:
geuk, Amatxu, be, / igar geuriok
jartzen dautzuguz / oñetan.*

Altsua da ama seme-alabaentzat, gaixoardian eta arriskueta batez be. Bizkaitar semeak abeska goretsi nai dabe euren Ama. Onein samak zolitzeko deskatso koplariak, errime abestu dagioen; garbi biotzak be, zerrutar loraz jantzirik.

*Geure samiok / indartu, zeuri
abes-eiteko / zindorik:
geure bijotzok / garbitu, Ama,
lora guranez / beterik.*

Bai, bete beiz Amak gure biotzak lora guranez, au da, guri lerdenez. Eta, amaitzeko, entzun bei bere maitaleak dagitsen eskaria, ta oneik ordaiñez, aurrerantzean be, Aren aintza, ospea ta artutako mesedeak ludian zabaltzen ekingo. Orrela egiñaz, zeruan beitez loratsu biotz maitaleak.

*Entzun eske au / ta zeure eskarra
abestukogu / ludijan:
geure goguok / zerura igonda
beti loraztu / ditezan.*

Ikus: *Patria*, 1904-orrilla-1.


* * *

J. M. Leizaola'k Onaindia'ren «Milla euskal-olerki eder» idatzia aztertzean, onela idatzi eban: «Sabiñ'en aurreko bizkaitar olerkariyak Mikoleta (1655), Basterretxea (1750), Aboitiz, Salaberi (?), Zabala, Uriarte, Azkue (E.), Arrese-Beitia, lau ordez zortzi dira eta oyetako batzuek etzuen gauza ugaririk egin. Sabiñ'en arokoak eta ondorengoak 53 olerkari dira.

«Zer esanik ez dago, Sabiñ'en ondorengo olerkariyak euzko-izateari eltzen diyetela. Aren aurretik, *alegiyak* ziran olerki-mota zabalduena: Sabiñ'ek berriz euskotasunari eta Jaungoikotasunari eramane zuan olertiyaren joera.

«Gipuzkoan ere aren aziya sakon-sakon sartu zala oartzen ba degu, eta gure mendeko gipuzkoar olerkariyak Onaindia A'ren idaztiyan 80 baño geyago dirala, argi agertuko zaigu euskal-olertiyan Sabiñ'en ereintza eman-emankorra izan dala.

«Euzkotarrak gaur Euzkadi aberri egiazkotzat, gure aberritzat daukagula, gure abertzaletasunak euzkotar go-goak era batera Euzkadi'ren morroitzara ekarri ditu. Orra itz batean irurogei urte oyetan egindako goldaketa». (*Ibidem*, 184 orr.).



Auxe da, agiri danez, Sabin espetxean egon zaneko lenengo argazkia, 1895'an. Salatua izan zan «Bizkaitarra»-n idatzitako lantxo bategaitik. Eta 1895-VIII-10'tik urrengo urteko urtarrillaren 13'rarte, Larrinaga'n, egon zan. Orduantxe itxi eutsoen «Euskeldun-Batzokija», eta «Bizkaitarra» debekatu.

XX

EDERRA ZARA

Ona gai bi, Eder eta Aberri, oso interesgarriak. Milla ikuspegi daukoz ederrak; izadia eder da, argiz ta itzalez, askotariko atalez osoturikoa. Eder dira izaki danak be: or ederra, izaki bat daukazu lekuan, ederra daukazu. Eta emendik goaz, gorantza, maillaz mailla oroz-gaiñeko ederreraíño; Jainko ederreraíño. Mundua Jainkoaren oin-atza da: Jainkoaren ontasunak, itxura lez, ederra damotse gauza guztiai.

Moral-einean, ederra bera eder dozu; bardin osasuna, zuurtasuna, bizia, atsegiña, onoiмена, giza-egipenak... Oiturazko zuzenbidea naiz prestutasuna edertasunaz kidetzen eban Platon'ek; jardunak naiz jakintzak, arentzat, ederrak ziran. Elendarren ustez, gizon zintzo ta biotzoneko bat, edo-ta ondo antolatutako uri bat, neskatz jaiki ta pertxenta bat baiño ederrago zan.

Ortaz berezko edertasunak ba-dau garrantzirik. Hegel'ek, beste askok lez, bere *Estetika* idatzi eban, ederrari buruzko eritxi ta uste bitxiz gaiñezka. Ideak, guk buruan oi dogun gogapenak, gogaiak, edertasunari gogokiozala, iru mailla ditu: ederraren gogai soilla, *ederta*

suna, esate baterako; gero, ederra izadian, munduko gauzetan, sorkarietan; eta irugarren, eder-eredua, au da, ederra erti-lanetan oretua, aragitua. Zer da orduan ederra? Gogaiaren agerpen sentikorra, sumagarria. Gai biok —gogaia ta itxura sumakorra— alkarregandik banandu eziñak dira. Gogaia agertu, barriz, izadian egiten yaku geien bat, edo batez be. Ortik berezko ederraren garrantzia.

Bereizte onein ostean, gaiakozan Aberriari. Aberria = aba (guraso) erria, jaio garean lur-zatiari deritxogu. Lur-zati onetan sortu ta bizi izan ziran gure aurretikoak, asabak, gurasoak: lenen lur-zati bat, Euskalerria, esaterako; ondoren gizasemeak lur-zati orren gaiñean. Gizona, barriz, gorputz eta arima da. Ez da gorputz bakarrik, gorputzari bizia damotsan ezpiritu, goi-arnasaren jabe da. Ez, arnasa ori ez dautso lurrak, gaiak emon: goitikoa dau, illezkorra. Gorputz-arima onein bizia zirkiñez adierazten baldin ba'dogu, arnasaren doairik bikaiñena, geure gogai ta biozkadak ingurukoai aitzen emoteko indarra, ots, izkuntza, espirituzko barne-bizi ori ez dago geure mende; goitik yatorkun beste zerbait da, eta Aberria tasun oneik osotzen dabe: lur, gizaseme, izkuntza, lege, erlejiño, oitura, kanta, dantza... Gure barruaren adierazle bipillak naitaez. Labur: gure egiazko nortasuna, gure Aberria orretzek dagie.

Ariketa onen ardurapean idatzi eban Arana'k urrengo poema txiki au. Ederto, izadiko ta norbere barruko edertasuna gogoan izanik, au diñosku:

*Eder-ederra zaran
geure Aberrija,
ta edertasun ori
geuretzat egin da.*

Eder ta on, geure Aberria da, ez beste inorenena. Eguzkiak bere-bere dau berotasuna: euskaldunak era berean, bere-bere dau Euskalerrria. Gizona, alan eta guzti be, bekaiztia izan oi yaku, eta ba'leiteke, euskal lurra ta bertoko biztanleak ederrak dirala-ta, norbaitzuk, barne-lera gaiztoak eraginda, gure erriaren etsai izatea, gure lurra ta gauzak loitu, ezaindu gura izatea. Arana'k abeska:

*Ezaindu gura ba-zau
erbesteren batek,
jaso Goiko iturrirantz
zeure begi orrek.*


Goian daukagu euki be, edertasunaren Iturri oparatsua, gudarostien Errege aundi, bekaitzak urtu, mingain txarrak ezi ta gorrotoak biguntzen dituna.

Ikus: *Patria*, 1904-iraila-24.

* * *

«Yainkoak egin-ederra ta guk egin-ederra ein betetsuan ikus ditzakegu. Yainkoak egin-ederrik oro, Bere aztarna du beti, gauzarik kaxkarrenetan ere. Zenbait gauzetan, guk ederren derizkigunetan, ispillu ere bai, gauduzko samarra izan arren. Antza bai beintzat, «ad imaginem et similitudinem» eginak baikaitu. Yainkoak ez dezake Bere ispillu garbirik arki beraz kanpo atera ditun gauzetan; bai ordea aztarna. Guk ere gerok egin-gauzetan, batez ere eder-lanetan, geron aztarna billa nai dugu, ta al ba genu, ispillua».

(Orixe, *Yakintza*, 1934, Epail-Jorrailla).



Albia'n bere etxeko baratzean arturiko argazkia. Gernika'ko Zugatzaren arabegi edo kimu bat landatu eban Sabin'ek, ementxe. Eder zituan zugatz eta lora arteak. Eta giza-kimuak.

XXI

AI, MIKEL, MIKEL, MIKEL!

Erri-eresi bat zutoin izanik egiña au be. Gazte gintzazala, gure artean beñik-bein, sarri entzuten zan «Ai, Peru, Peru...» abestia. Auxe eredu artuaz ondu eban Arana'k beraren au. Polita. Orduko ta gaurko ekanduak, obeto, erriko, eskolako ta Kristau-Ikasbideazko goraberrak maxeatzen ditu bertsotan.

Olerkaria, bere eguneroko joan-etorrian, ikastola aurretik igaro da. Uste eban euskeraz ebiltzala bertako neska-mutillak. Bai zera! Erderara jo ta erderaz diardue. Eta koplariak:

*Ai, Mikel, Mikel, Mikel,
au da zoritxarra!
Jayo nazan urija
ezin ezautia.*

*Goxion igaro naz
ikastola-aurretik,
ta ikaratuta nauka
dodanak ikusi.*

*Ber-bertoko txotxuak,
bat be kendu-ezik,
gustijak lotsa-baga
erdera egiñak.*

Ezta arritzekoa. Argi ordeztu illuna daukagu ikastolan maixu-maistrak erdelzaleak dira-ta. Biak sartu dauskuez umeai erderaz erakutsi dagitsen, gure euskerak ez dauala ezertarako balio esanik.

*Oraintxe, aspaldiko,
azalduko dautzut:
guk semien maixutzat
maketo bat dogu.*

*Neskatoen maistrea
euzkeldun utza da:
erestuna imintzeko
azurbaltz ederra.*

*Bijak ekarri yakuz
erdera irakasten,
euzkera eztala-ta
ezertarako bez.*

Olan jarraitzekotan, zer? Laster seme-alaba barrik. Edo izatekotan be, piztien pareko. Kristiñau arloan ez dabe fedezko egirik ikasten, eta gitxi barru euron buruak galduko dabez, baita euren lagunak be. Azkenez, euskal uri osoa. Urak atsitu ezketiño, dana galdua da-ta.

*Ai, Mikel, Mikel Mikel,
olanik ixanik,
laster eztogu ixango
seme-alabarik.*

*Dotriñarik umiek
ikasi-eziñik,
aziko yatzuz danak
bapex jakin-barik.*

*Euren buruba galdu,
galdu lagunak be,
ta geure uri gustija
galduko dauskube.*

Galzori artetik seme-alabak, eta uria, urrintzearren, mamindu oi ebazan Arana'k bertso ain zirtolariak.

Ikus: *Patria*, 1904-iraila-24.

XXII

ABERTZALE EZKONDUBA ESPETXIAN

Ez naz esaten aspertuko: ordu ta egun illunak bizi izateko jaioa gendun Arana, Aberriagazko eginkizun latza aurrera eroatean, egin-egiñean be. 1902'neko maiatzaren 24 zan. Sabin'ek adiskide bati idatzi eutson Sukarrieta'tik, telegrama baten textua bialduaz: Ipar-Amerika'ko Lendakariari zorion-agurra emoten eutson idazki orren bitartez.

Urrut-idazkiaren textua au zan: «Roosevelt, Laterri Batuetako Lendakari, Washintong. Euzko Alderdi Jeltzalearen izenean, zorionak ugari zuk zuzentzen dozun Alkartasun prestu orrek Kuba'ri emon dautson azkatasunagaitik; jopu ta morroi izatetik atera bait dozue erri ori. Zure Laterri indartsubak eskinitako ikasbide zabala dozu nunbait, baita zuzentasunari ta azkatasunari emoniko gurtza bikaiña be. Ez-ezaguna Edestiarentzat, eta Europa'ko aginterriak aintzat artu bear leukiena, latindarrak batez be. Europa'k orrela ba'legi, euzko abenderria, bertoko errialderik zarrena —zuon legedi barruan, zuon Laterri Batuan txalo beroak merezi izan zituana— gizaldiak zear azkatasun osoz bizi izan zana, gaur azke izango litzateke. Arana-Goiri».

Kablegrama onek ez eban bialdu gogo zan lekura joaterik izan; Bilbao'ko Bidai-etxean lotu zan. Salatua izan zan; eta zigorgarri, agintarien eritxiz, idatzi ebana. Sabin illabete berberaren 30'an auzipetu ta beingoan Larrinaga'ra eroan eben atxillo. Aldun zan Arana sasoi aretan, baiña Diputaziñoak berak ez eban ezer egin kargudun zanaren alde. Giltzapetuaren adiskide ta lagunak, bai, milla alegin zoritu ebezan ari, beinbeñeko azkatasuna beintzat, lortu naiez; ate-jote askoren artean, Espaiñako Jaurlaritzako ministru-etxera be idatzi bide zan, iru egunez bakarrik 8.365 lagunek, alderdi politiku ta talde ta eritxi guztietako jentek izenpeturiko orri-mordoaz.

Bateren batzuk, antza, uts-egin eben izenpetze ortatik. Mingarri ete yakon au, abandotarrari? Berezko; leotz ixillean egoanik atan be. Sabin, baiña, biotz zabaleroa izan. Eta bai arei ta bai onei eskerrak damotsez biotzez, «La Patria» aldizkarian, 47'garren zenbakian irakurri daik egunez: «... arei —diño— (oso gitxi, zorionez, neure azkatasun bein-beiña eskatzeko euren izenpetzea ukatu daustanai, ain errez aztu ezingo dodan arren, parkatzen dautset, jakiña; eta egundokoren baten nire laguntasunaren premiñarik ba'leukie ta nire firma ezereza baliotsu litzakioela ba'leritxe, erabil legikeez euren adiskideak, nai aiñatan erabilli be, nik oso pozik itxiko dautset eta. Jainkoak ezpei nai eurak olakorik eukiterik». Ziñaltza bikaiña!

Dalako idazki ainbatek izenpetua ez yakon orduan, opa zan lege, Laterriko ministruari bialdu al izan; gerogo, bai, Sagasta'ri, kontseilluko buruzagiari zuzendu yakon. Alan eta guzti be etzan ezer jadetsi.

Azaldu nai dogun poema au Arana'k, garai aretan, espetxe barruan aurkitzen zala idatzi eban. Eder eta sentikor ari da. Daukan guztia eskintzen dautso Aberriari; Aberriaren ondian jarten dau guztia, opari bizi lez: bizi, osasun, emazte, diru...

Aurrean dauko, burdiñaz bestaldetik, ikusten doakion emaztea, «urrezko biotza» dauana; negarrez dakus Suka-
rrieta'n, itxas-ertzean. Min aunditan idazten dau Arana'k:

*Ezkon samurra,
ezti gozua,
urre-bijotza.
Akusanat atsege,
bakar, gautegun negarrez.
Auxe min utsa. Ez, arren! ein negar.
Eugaz lotu don or nire bijotza.*

Negarrez austuta ikusten dau, iñondik iñora, bere emazte maitea. Eta, ona bertsoaren ederra! Negar-malko garratzok be Aberriari eskintzen dautsoz; ez dauka bes-
terik.

*Aberri ama,
artu gogo onez
malko ederrok.
Orren ganex nik extot
zer besterik zeuri emon.
Bozu buruban eriñotz-estunik,
orrek loratzat orritik eskegi.*

Bagillaren irua da. Loraz jantzirik inguruak. Lorak iruditzen yakoz emaztearen negar-arpuluak; eta beste ezer ez daukan ezkerro, aurok eskiñiko dautsoz Aberriari. Antzetsu diño: «Aberri, buruan eriñotz-estuntzarik bal-
din ba'dozu, esegi egizuz malkuok be loratzat eriñotz-
osto orretatik». Irudikizun sotilla! Olaxe lau-lau ta errez
doa, jarioka, paperera Arana'ren barne-muin osoa.

J. M. Leizaola'k Arana'ren olerki bi aztertu zituan bere «Estudios sobre la Poesía vasca» liburuan: «Euzko Abendearen ereserkija» ta «Abertzale ezkondua espe-

txian». Bigarren onen egiturari buruz, au diñosku: «Emen zazpi bertsoan lau neurri daukaguz. Baiña Sabin'ek bigarren estrofan asonantzi pitiñenik bage izten ditu zazpiretatik bi. Aspaldiko edo aotik aorako euskal neurkera gaietan nik ezagutzen dodan askatasunik ausartena dozu. Lenengoan, alan be, ez dau eragozpenik itz bat, «bijotza», bertso bi amaitzerakoan, birritan esateko be».

Poesia ta malko onein kako zan auzia atzenez aurre-ra joan zan. Urte bereko azillaren 7'an, arratsaldeko lau ta erdietan, asi zan barriz be epai-arazoa, urrengo egunean amaiturik; epailariak ez eben ezer zigorgarri zanik aurkitu etsaiak leporatu eutsoen zama biurrian. Beraz, beingoan atera eben espetxetik. Ipolito Valdes fiskalak, baiña, epaikarien erabagia ezereztu ta indar barik itxiteko asmoz, gora jo ebanarren, etzan ortik ezer jadetsi.

Auxe dozu Arana'k ondu ebazan olerkietatik azkena, «gustijetatik samur ta abertzaliena». 1902'eko bagillaren 3'an idatzi eban, Larrinaga'n; baiña etzan argitara emona izan, bere emazteari opaldu eutsolako. Sabin ilda gero, erderalpen ta guzti argitaratu zan.

Ikus: *Patria*, 1904-azilla-12.

XXIII


OTSEÑA ZARA

Aurrerakuntza garaian ete dabilkigu mundua? Orrela autortu daroagu, ez gitxitan. Egipen au ezbaian jarri dabenak, beste aldetik, askotxo dira. Itandu uri aundietan naiz gure baserrietan gaur bizi diranai, eta urietan bear lango garbitasunik eza ta baserrietan euren gurasoen denporako bake ta lan-gogoa aitatuko dautzuez. Ez errazoi barik, gero! Aldi areik, euren ustez, obeak ziran. Teknikazko aurrerakuntzak —irradi, berebil, egazkin, telebista ta olakoak— ugariak izanagaitik, eta gizona bere gora-nai bizian illargian be oiñak ipiñia izan, ezta len baizen zoriontsu aurkitzen. Egon-eziñak darabil dantzari, aizeak daroan ostoaren antzeko.

Origaitik edo diño Arana'k kanta onetan:

Zorijona
zeure laguna zan
zeure lagijen
aldijan.

Noz-nai
zeure buruban jauna ziñan:
gatxa zer zan etzenkijan.



**Begira beste zugatz ostotsu bat, Sabin'ek Su-
karrieta'n sartutakoa. Aren Aberri otoz-otoaren
muzkilla nunbait.**

XXIV

K E N !

Eragin biziko kantu. Leen, eta gaur be, erriak pozik abesten dauana. Motz, azurbaltz, belarrimotz, maketo ta gaiñerako Arana'k dabiltzan itzak, erbestetik ona etorriai ezarritako gatzizenak dira. Ori zan orduko giroa, ta gauza bakotxa naiz jazoera bakotxa naiz kantu bat bere sort-orduko laukian ikusi bear da, eta iñolaz bez nobera bizi dan aldi-unean: igali ondo umotua udazkenean. Gaur be giro aren oiartzuna ba-dantzugula dirudi, baiña motelduz doa gero ta geiago.

Lau aapaldi iru bertsodunek osotzen dabe poema au. Esan dogunez, bizkortasun aundia dau bertso bakotxak. Ona lenengo aapaldia:

*Kendu, kendu
maketuok eta
euzkeldun maketo-zaliok!*

Kanpotik etorritakoak baiña nazkagarriago yakozen Arana'ri euskaldun kanpotar zaleak. Euskotarrik asko illun-laiñope izugarrian egozanak parkagarri ziran, baiña beste askoren buru-muiñetan laiño kaltegarri orrek

egoitza betikorra egiñik eukan; laiño orren sabela urratzen saiatu oi zan abertzaletasuna. Alaz be ba-ziran oraindik jakiñez atan be, laiñotza orren sabel-barru iraun gurago ebenak, etsaiaren lagun begiko nunbait, laiñotza itxi ta aberri-gaiñaren argi dirdaitsuaz jabetu baiño. Onei autsak atera oi eutsezan Arana'k. Etoi, saltzaille, azpisuge ziran orreik, erria, oiturak, izkuntza ta besteak zapalduaz, iñoren eremura jorik, etxekoari muzin egiten eutsoenak. Olakoak:

*Bota, bota
azurbaltzok eta
euren lagun gustijok!*

Aldatz-gora egiten yaku, egin be, geurea ondatzen diarduana jasatea. Azur baltzok, ostera, ortan dabiltz arduratsu. Zer egin onakoakaz?

*Kendu, kendu,
atara bota, bai,
zapal nai gabexanok!*

Eztogu etxean bear enda ortako oillarrik. Sendia ta sendi-ondasunak —Euskalerria— zaintzeko, jit oneko jentea bear-bearrezko dogu.

«I ta ni ta» musikarekin kantatzen dau.

Ikus: *Patria*, 1904-urrilla-15; *Aberri*, 1907-iraila-14.

XXV

EUZKO-ABENDEAREN ERESERKIJA

Larrinaga'n egoala egiña. Gorago esan denez, «Bizkaitarra» asterokoan argitaldu ebazan naskaldi batzukaitik, 1895'neko dagonillaren 28'tik espetxean aurkitzen zan Arana-Goiri. Orduantxe itxi eutsoen arek ain maite eban «Euskeldun Batzokija», urte bereko iraillaren 12'an; baita «Bizkaitarra» ixil-azo be. 1896'neko urtarrillaren 13'rarte antxe egon bear izan eban, Filomeno Soltura'ren salakuntza zala bide.

Garai aretan ausnartu eban Sabin'ek, eta adierazo, euzko Ereserkiaren asmoa. Urte aretan, ots, 1895'an, Ander Deunaren eguna zalarik, 45 abertzale alkartu ziran Txatxarramendi'n. Arana-Goiri'tar Koldobika'k irakurri eutsen an alkartutakoai Sabin'ek bialdutako idatzia; onela iñoan: «Gurutz bi dira Bizkaia'renak: Jaun-Goikuarena ta Done-Ander'ena. Onek esan gura dau bitan gure burubak gurutzaldu biar doguzala, gure Errija zorijonduteko: JAUN-GOIKUA'gaitik eta LAGI-ZARRA'gaitik. Geure odolak biztu begiz nozedonoz Areitz Donia ta bere ganian daguan GURUTZ ZURIJA». Gerago, sarri lez, Aldun probintziala zalarik, 1902-5-30'an,

giltzapetu eben esan dogun Ipar-Amerika'ko lendakariari igorritako kable edo urruti-idatziagaitik; eta orduantxe, Larrinaga'n, osotu eban Arana'k, lengo gogaiari begira, Euzko-Ereserkiak gaur daroan letrea.

Martxa zabal, nasai, ederra dozu; ibar zear itzal aundiz dabillen ibai baten edertasunez jantzia. Antxiñako Ezpata-dantzaren doñua artu eban eredu, oiñarri lez. Itzear egoan dantza au; Bizkaia'n lau talde baiño etziran berau dantzatzen ebenak: Yurreta, Garai, Berriz eta Abadiño'koa. Arana'k dantza au 1886'an Durango'n Astarloa'ren omenetan egin ziran jaietan ikusi ta entzun eban lenengoz, eta atsegin izan yakon oso. Urrengo urtean, 1897'an, D'Abbadie jaunaren goratzarrez egiñiko jaietan be bardin, an ziran Arana-Goiri anaiak, dantza ta musikaz asetu nairik.

Ona, beraz, gure ereserki aintzagarriaren edestia. Sabin'ek egiña dozu letrea ta Zabala'tar Keleto musikalari nabariak jarri eutson gaur daukan musikea aspaldiko Ezpatadantzatik artua. Bete ta aberkoia nunbait euzko Ereserki au; Sabin ilda gero, Euzko Alderdi Jeltzaleak Aberri ereserkitzat artu eban: orrela ezagutua ta abestua da gaur egunean. Ona Arana'k ipiñi eutson izkia:

*Gora ta gora Euzkadi!
Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!*

<i>Areitz bat Bizkaya'n da</i>	<i>Areitz-ganian dogu</i>
<i>Zar, sendo,</i>	<i>Gurutza</i>
<i>Zindo</i>	<i>Deuna,</i>
<i>Bera ta</i>	<i>Beti geure</i>
<i>Bere lagija lakua.</i>	<i>Goi-buru.</i>

*Abestu gora Euzkadi!
Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!*

Aberkoia benetan. Atzo lez gaur, zenbat aldiz abestu izan dan, erritar billera ospetsuetan batez be. Euskaldun semeak, talde nasaitan, abestuta beti iruditu izan yaku arnasa beroko ta jas itzalekoa. Laterri guztiak dabe euren ereserkia; bakotxari, jakiña, berea begitantzen yako ederrena, sotil lerdanena. Guk, iñori ezer kendu bage, auxe joten dogu ederrenetarikoentzat, eta lotsa barik diñogu: «Guretzat auxe bikaiña oso!»

Lau zati daukaz, naiko berezituak. Ona lenengoaren iru bertsoak.

Gora ta gora Euzkadi!
Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!

Aberriari buruzko ereserkian, berez-berez, goretsi nai dogun aberria aitatu bear da lenen, naitaez gero. Nik orrela uste, zuzen eta egoki bait da. Sabin'ek ederto: «Gota ta kora...» Gora, bai, gure lurraldea osorik, Euzkadi dana. Lur au, dala eder, dala motz, gurea dogu, lur oba eziña. Lur au, barriz, ezta berez ernea, norbaitek egiña baiño. Gure goralpena, ospe ta aintza, merezi ditu sortzaille orrek be. Eta Arana'k onela:

Aintza ta aintza
Bere Goiko-Jaun onari!

Autor daigun argi ta garbi: gizaseme osoa gendun Arana. Ez eban nai, ez, Jainko bageko aberririk. Au eukan goiburu lez: «Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat». Jakin begie, bada, Jainko bako Euzkadi gura dabenak. Izadiz gaiñetiko zer bat daroagu gure baitan; ezer ori ez da gai, ez da lur, beste zerbait da, Jainkoaren atsa; orrek damosku bizia, esanda itxi do-

gunez. Eta bizia duban emon dauskun Orrek merezi gure onespen, aipu ta txaloak. Ortan ezta gure ereserkia le-nengoa: ingelesak be onela abestu daroe: «God save the King» (Jainkoak salba bei Erregea), 1740'garrenean le-lengoz oiukatua izanarren.

Bigarren zatiak bost bertso ditu, ezbardiñak. Ona:

*Areitz bat Bizkaya'n da
Zar, sendo, zindo,
Bere ta bera Lagija lakua;*

Ez dozu paradoxa, ezta irudimenaren zapart ausar-tegia be. Ba-dogu euskaldunok geure oitura zarra, as-paldikoa, istori-aurreko osto artean jaioa ta belaunez be-laun azken mendeetaraiño luzatua. Ekandu oneik, oitura zarrok, errietako usadioak, oraintsu artè, 1876'rarte, biz-kaitar erriak alkartu ta Gernika'ko Areitz-pean, Arbo-lapean aztertu oi ziran. Bizkai'ko mendirik garaienetan —Gorbea, Anboto, Oiz, Ganekogorta, Kolutza...— sua egiñik, Batzarrerako deia artzen zan eta erri guztietako ordezkariak baturik, antxe, Gernika'n bizkaitar guztien ona zana ebatzi, oitura ta ekanduak —bete naiz ausi— zelan ebiltzan ikusi ta erabagi barriak artu oi ziran, da-nen eritxiz egoki ziranak ain zuzen..

Batzar-tokiko areitza dakar gogora Arana'k, bertatik: zar, sendo ta zindoa. Zarra, aintxiñakoa da-ta; sendo mardula, beti, azal ta mamin; baita zindoa be, pipiak jo barik bai daukagu oindiñokarren. Zugatz eder antze-ko dozu Bizkaia'ren Lagi-Zarra be.

Eta lenera biurtuz, Gurutzea ikusten dau Arana'k, Gurutza Deuna, zugatz santu orren adar gaiñean. Iru-dikizun utsa bear bada? Ez, Gurutzeak bere leku egokia dau ortxe. Gizonak gora begitu bear dau, ta gure zuga-tzari so-egitean aurki daiala Gurutza deuna, beti bere goiburu. Arana'k irugarren zatian:

*Areitz ganian dogu
Gurutza Deuna
Beti geure Goiburu.*

Amaitzeko, barriz, asierako gai biak dakaz oster a be
gogora: Aberria ta Jainkoa. Bientzat gure abestiaren go-
zotasuna!

*Abestu gora Euzkadi!
Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!*

Ereserki giarra, olako edozeiñen tartean burru-arro
agertu daitekena, edozein eres-txortatan agertu be. Bi-
kain-bikaiña itzez naiz musikaz.

J. J. Leizaola'k, bere «Estudios sobre la poesía vas-
ca» liburuan diñoskunez, Arana-Goiri'k «era edo mueta
barri bat sortazi euskun euskal olertiaren eremuan». Ez
dakar gomutara aberri-poesia, lendik be ba-zalako gure
literaturan abertzale poesi erromantiku bat, «Altabizkar'
ko Kantu» ta «Gernika'ko Arbolatik» balada ereserki
lez asi ta «Ama Euskeriaren Agur»-eraño eresi bezela.
Sabin'ek sorterazitako era barria bertso zuria, azkea da;
len etzan euskal elertian tankera au, ta Arana'k darabil
bere neurtitzetan. Poesi lirikan darabil batez be, ta Sa-
bin'ek ondu euskun geiena lirika saillean ipiñi daikegu
(46 orr.). Eta poema bi damoskuz eredutzat: «Euzko
Abendearen Ereserkija» ta «Abertzale ezkonduba espe-
txian».

Alan eta guzti be, sakon-sakon aztertu ezker o, rima-
nai zeatzago bat ba'leiteke or itzetan idoro al izatea.
Azkenengo aapaldian, esaterako, ...«Euzkadi» ...«onari»,
ez ete daukagu rimaren oiñatz edo aztar-onдорik? Txit
zuurra zan Arana zeaztasunetan, eta ez litzateke bear
bada erreitik kanpo ibiltea olako zerbait ba-dauala pen-

tsatzea. Guretzat, alan be, oraingoz naiko, au esanaz: irugarren zatiaren amar bertsuok, «Areitz bat Bizkaya'n da» ta abar, guztiz ezbarđiak dirala; barne-igiera ta ritmurik ezin geinkeoe ukatu, rima esatekorik, ez da emen agiri. Amar bertsuok onela berezi geinkez: zortzi silabadun bat, zazpi silabako bi, lau silabako bat, iru silabako lau ta bi silabako bi.

Zer dirausku onek? Arana-Goiri izan dala, zalantza barik, bertso zuri edo askearen sortzaille euskal poetikan; abandotarra asi zan, poemak egiterakoan, neurrizko ariak eten eta askatasun-bidez tapa-tapa egiten. Aren aurretikoak, bai poesi errikoian eta bai eskolatuan (Etxepare, Oienart, Etxahun, Elizanburu, Zaldubi, Bekas, Dibarrart, Arrese-Beitia...) danak esan geinke, bertso ederki neurtuetan idatzi eben. Arana-Goiri'k, oster, ritmuari ta zirkiñari ibilkortasun biziagoa ezarri nairik bear bada, bertso askatura jo eban. Poema askotan, alan be, musika doiñuari jarraiz ibilli bearrean aurkitu zalako, neurria ta azken oskidetsua zeatz-zeatz zaindu zituan.

Ikus: *Euzkadi* aldizkaria, 1905-orrilla.

XXVI

ENE ABERRIJA!

Aberkoia au be. Gogapen txairo bat, jantzi dotorez apaindurik. Mendi osterik gorantz igoten dakus olerkariak eguzkia; baita biotz onetik jalgita, otoitza be Jainkogana abiatzen. Eguzkia gero itxasoan sartzen, eta era berean seme onaren gogoa gurasoen obirantza makurtzen. Ona:

*Bizkarregi'tik / zeru-goyenantz
euzkija igoten / bai-dala,
biotz danetik / Jaungoiko'ganantz
egatuten da / arrena.*

*Euzkija gero / jausten danian
itxaso-amai / osteria,
seme onaren / gogua, bere
guraso-obira / jasten da.*

Aberriak, baiña, ez dagi olan; beronek soil-soillik daukaz aztuta Jainkoa ta asabak. Biokaz ainbesteko zorretan, eta biok aztuta.

*Gautegun zerorrek
bakarrik, Ama,
zeure Jaungoiko ta
asabeak dozuz
aiztuta!*

Zortziko nausitan dagoz lenengo aapaldi biak. Azkenak, barriz, lenengo bertsoak, irugarrenak eta laugarrenak, bakotxak sei silaba daukez; bigarrenak bost, eta bostgarrenak lau. 1897-garilla-25'an egiña.

Ikus: *Euzkadi* aldizkaria, 1906-garilla.

* * *

«Iltzen doakigu Aberria. Euskalerririk gaurdaño zera-kuzkian enderritasunak mara-mara urritzen doazkigu, maxkaltzen, aitzen.

«Zenbait izakera ta berezitasun malgutzea besterik ez balitz! Biar, zorigaitzenezan ordea, gure Abenda betiko il-da ikus dakustegu, agian.

«Leñargiz berdingabea izandako Erria, ezurruts biur-tua dakuskegu, ausaz, ezjakiñaren bazterrean etzana». (S. Mitxelena, *Idazlan Guztiak*, I, 25 orr.).

XXVII

AI, KEPANDON!

Ziri-olerkia. Onakoak ugari daukaguz euskal literaturan, erri-poesi ta bertsoetan batez be. Ainbat dakaz Azkue'k bere «Euskalerraren Yakintza» liburu oparoan; adibidez: «Ai, Angela!», «Andra eder bat», «Amodioa», «Ara nora joan ziran», «Asiak egiña dirudi», «Aurten gaztaña urte», «Baserritarra», «Ezkondutza nitzanean», «Neskazarra» ta abar. Oneik eta antzeko beste asko piper-miñez dagozala, Arana'k osotuak geiago dabe, trebeago egiñak diranik ezin ukatu.

Kepandon'ek otsein bialdu dau alabea; gaixoak ez daki nora doan, Euskalerritik kanpo, Ipar-Euzkadi'n gaur be oitura dabez. Kepandon'en alabea Bilbao'ra edo joango zan neskame ta bide batez erdera ikasten aurki. Bildoza otso artera lez, ez ete?

Kopla-sail onek zortzi aapaldi ditu zortziko txikitan, aapaldi bakotxaren ostean lelo edo errepika daroala. «Matxalen Busturiko» erri-kanta lez abesten da. Ona:

*Esan nora, Kepandon,
ire alabea
otseña ixateko
bidaldu duan, ba.*

Diru utsaren irritsez bialdua da gaztea uri nausira.
Errepikak ederto:

Ai, Kepandon, Kepandon!
eu diruzalia:
ilda be ibilliko az
beti diru-billa.

Sarri entzuna da, ta ez eleizan bakarrik, euskaldun askok kortako abereak arduratsuago jagon oi dabezala, seme-alabak baiño. Olerkariak darrai:

Nora beya jatera
bakik eruaten:
umia bidaltzeko
nora begitu bez.
Ai, Kepandon...

Iñoizkoren baten ezer esatera ezketiño, ez jakiñarena dok egiten. Txanpon loa artzerakoan, baiña, pozaren pozez barruak dantzan.

Eztakijala diñok
eta euri zer, ta
diruba artu ezker,
poz-pozik agola.
Ai, Kepandon...

Pozik eskuratzen duan txindi ori, ba al dakik zelan irabazia dan? Ez dok ori jakin nai.

Diru asko umiak
ba-deusk eratortzen,
zelan ainbat ein yuan
ik igarri nai bez.
Ai, Kepandon...

Alabeak etxera egin osteretan garbi dakaz eskuak,
baña ez ete dautso zaldun gazteren batek biotza us-
telazo?

*Bere eskubak ba-dakik
garbi yagozala:
ez, baña, iñok bijotza
usteldu ba-yeutsan.
Ai, Kepandon...*

Lerden, apaindua dabil neskatxa. Orrek poza emoten
Kepandon'i. Alan be —emen baserritarrentzat irudi ego-
kia—, urde-tokiak be, garbitu ezkeru, eder iruditzen.

*Arro ago ikustiaz
umia apainduta:
txarrija legoke eder
ondo garbituta.
Ai, Kepandon...*

Ondorena: baserrian lan-egiñak eskuak zikintzen, bai-
ña neska garbiak gurasoen ondoan dira aurkitzen.

*Basoko lan gogorraz
loi ta latz eskubak;
baña neska garbijak
aita-amen onduan.
Ai, Kepandon...*

Zenbatek ez dabe, diruagaitik, umea galtzen? Gero,
ez diru ta ez alaba. Jenteak, irri artean: *or konpon!*

*Diruba irabazteko
umia galdu bok,
diru-barik entzungok
bein betiko or konpon.
Ai, Kepandon...*

Zortziko txiki oneitan errimari ez dautso Arana'k jaramon geiegirik egin; bai, oster, neurriari. Ez legokez gaizki aapaldiok ezten-neurtitzez osoturiko antoloji baten.

Ikus: *Euzkadi* aldizkingia, 1906-VII.

* * *

«Ez da zeregin erreza —diño *Igotz'*ek— poesia zer dan zeatz eta meatz adieraztea. Literaturazko mende askoren ondoren, oraindik agertu barik dago geure pentsamentuak eta sentipenak erakusteko darabilgun tankera berezi orri buruzko azalpen doi-doia. Ni ba'nindoake poesiaren muiña berezi ta mugatzera, au esango nuke: «*Eder-raren karrasi da*». Didar edo intziri bat.

«Izan ere, eguzki disditsu bat, zeru izartsua, itxaso zabala, mendi jaikia, lore bat bide-ertzean, aitona jarrita etxe-atarian, mutil gazte bat bere lan-taillerrean, eskolara doan aur bat, ama bat bere seme illarekin, gudara doan gudari bat, neskatz etsimendua... ez al dira naskiro poesi gai? Barne-ikustea, intuizioa da poesi-lana.

«Olerkia, orrez gain, tristura ta illun-aldia osorik albo utzi gabe, pozaren iñar da; oraindik obeki, gizartean argia ta beroa ipinteko zerbait da, gaurko gizartean bereziki, triste ta illun bait dago. Olerkariak bere koplakin, eder eta «karrasiz» adieraziakin, ona, ederra ta argia ekarri dezaizkioke gizarteari, munduari». (*Principe de Viana*, Iruña, 1982, Urtarrilla, 7 orr.).

XXVIII

ASTARLOA'TAR PAUL KEPA'RI

Geroago, ez gitxitan, Muxika'ko Urretxindorrek egin euskun lez, Arana Goiri etzan ibilli olerki ta neurtítez eusko seme ernaiak goratzen. Poesi au, orraitíño, durangar jakitun baten goratzarrez eio eban.

Iru ziran Mogeldarrak, Astarloatarrak anai bi: bata prantzizkotarra ta bestea apaiza. Biak Durango'n jaioak; baiña ama markinarra ebelako, an aldíkada luzeak egiñak genduzan, umetan batez be. Pedro Jose'k (1751-1821) euskeraz idatzi eban, «Urteko Domeka gustijetarako Bernaldi ikasbidekuak» (Bilbao, 1816 ta 1818), ale bitan Pablo Pedro'k (1752-1805) erderaz idatzi eban naiko zabal, «Apología Bascongada» (Madrid, 1803) ta «Discursos filosóficos» (Bilbao, 1883) batez be. Liburu biotan, euskeraren aurkakoen kontra idatziak nunbait, gaur oiñarrizat errez artu ezin daikeguzan gauza asko dakazan arren, beste asko guztiz jakingarriak daukaz; itxorkunetan diarduenentzat zuzenbide argarriak benetan.

Arana'k, Durango'ko aren irudiaren aurrean arri ta lur edo, eguzkia ikusten dau Astarloa'ren bekokian, Irakur:

*Kikilduten da / zeure aurrian
neu-bekokija,
dakusalako / adi zeurian
euzkel-eguzkija.*

Astarloa zan, izan be, euskera zapaldu ta loitu nai-rik ebiltzan Joakin Traggia aragoitarra ta olakoen aurka, bipilki jokatu ebana; gau illuneko ipar aldean dirdir egian izarrak. Baiña il zan Astarloa, ta itzali zan izarra... Zori txar aundi!

*Artezkarija / zu ixaten zintzan,
zu ipar-ixarra...
Il ixan zana!... / Illundu gintzan,
zu igota gora...*

Ak ixeturiko suaren berotan, euskal idazle ta euskeralari askok diardue arrezkero lanean. Alan eta guzti be, beste ASTARLOA bat ezta jaioko amagandik. Izar bakarra zan, antza, Euzkadi ortzipean!

*Euzkeltzalerik / oindiño ordutik
ari dira asko...
best'Astarloa / bat amagandik
ezta jayoko.*

Oar: *Kikilduten ordez, kikiltxaiten diño Euzkadi'k;* baita zintzan, *gintzan* be, *zintzan* eta *gintzan'en* ordez. *Euzkadi'k, ari dira asko,* eta Olerkijak *asi dira asko.*

Olerki au, 1887'an ondua izanik be, Arana'k ez eban bere bizitzan argitaratu. «Euzkadi» aldizkingian agertu zan lenengoz, 1912'eko dagonillean, 282 orrialdean, erdel itzulpen eta guzti.

XXIX

SINIŠMENA!

Auxe da Arana-Goiri'ren lenengo neurtitz-lana, bizi-bizi egiña, biotz-ondotik berez-berez urtena. Ama il ya-kon 1897'an, eta jazoera onek iñoiz ez bezela arrotu ta dardaratu eutson barrua. Ogei ta bi urte eukazan; gazte zan, gaztearen biotza, gaiztotua ezpada, eder yaku frutuetan. Goi-argiz eta biotz-ikutuz oparoa dozu lan-txo au. Zeuri be, irakurriz, erantzi egiten dautzu bero-nek dauan berotasun ezin ukatua.

Aranak ondutako bertso-lanetatik lenengoa izan arren, ez eban bera bizi zala argitara ekarri. Eleizalde'tar Koldobika'k atera eban, aurretik abandotarrak sortu ta gero berak zuzendu eban «Euzkadi» aldizkingian, 1914'eko urtarrilla-otsailla zenbakian. Erderazko biurpen eta guzti dator. Arana'k aldi aretako bere idazkeraz idatzi eban, au da, ak bere «Gramática Elemental» argitara baiño lenago erabilli oi ebanean. Geroagokoa dozu aren idazkera berezia. Guk lenengo idazkeraz damogu emen.

Bost zati dauz lan txairo onek. Lenengoan, amari deiez, umezurtzaren biozkada leun-negartiak datoz. Maite eban ama galdua dauan ezkerro, eztau —zelan gero?— egiazko atsedetik, eztau ezelango poztasunik. Onela diño:

Ama maitea!

zetako,

zeu il da gero,

neu bizi?

Nere begion argia

ziñan da,

min uts-negarrak

itzali dostaz

uts baltzaz.

Biotza

lokatuta dot

atsekabeak:

atsegin

samurra

galduta,

atseden ezin.

Bertatik dator antzetsu ekarritako irudia:

Aritz zar baten

adarra

gau illuntako

ekatzak

etenez gero,

bertan lo pozik

egoan

egun-txoria

illunartetik

asten da

egaz da egaz,

ez nora ioan

yakiñaz,

ez non dabillan

gaizoa!

Olantxe neu be,

narabil

eriotz-putzak,

niri zeu, ama,

kenduta.

Nora narioian

ni zori txarrak

eztakit.

Olan bizi izan

dagokit?

Gau otz illuna bero-billa dabil eguzkiaren ostetik.
Umezurtza be olantxe, amaren billa, deiez, garraxiz. Bai-
ña aurkitzen ez... Obea ez ete litzakio eriotza bera?

Gau itzal otza

eguzkiaren

ostetik,

bein egunaro,

arpelik,

eziñaz...

Edonon loka,

edonoiz illun,

otz, utza?

*argi ta bero
bil-billa,
arinka,
dabilllen letxe:
nerau be
beti ibilliko
ete naz
amaren billa
iñoiz idoro*

*Eriotzaren
gozoa!
Erraz aurkigai aurkitzen
zeu zara.
Billauko zaitut?
Zegaitik
ama bagarik
ume au iraun
bizirik?*

Zist-zast dagi oiñestuak zeruan, gau baltza argi-azoz. Txorien estura! Ondoko zugatzera doa egazka. Bardin olerkariak be, goiko argiz jantzia izan da, ta argi orren dizdiz zurian ama ikusten berari begira... Aregaz aurkitzeko, argi orrek dirautso zein bidetik jo bear dauan: siñismena! Bai, beste bein be bere ama ikusteko gai izango da. Orduan ez dau egundo be banatzerik izango!

*Goiko oñastuak
basoa
ganetik bera
dana argi zuriz
beteta...
Txori estua,
ikusi ta, arin
eltzen da
zugatz batera.*

*Zeruan erne
ta nire gogo
laiñoiz itsura
yazten da
argi-erro bat
niretzat...*

Goiko argiaz
neronen ama
dakust oin bertan
nire begira
dagola,
erakutsirik
beraganako
daukadan bide
zuzena...

Sinistuten dot!
Beste bein ama
dot ikusiko
iñoiz be izteko.

Erruki,
erruki, Jauna
On itza zeuri!
Zeu zara
bigun ta launa!

Fedea goratzen dau azkenez. Siñiste barik ez daukazu maitasunik, ez daukazu itxaropenik, gau baltza soil-soilki.

Siñismenaren argia,
argietarik
eder ta
garbia!
Ez itxomenik
maitasunik ez.

zeu barik!
Bizitza onen
gau baltza
niri argitu.
Itxi, ai, arren!
enaizu.

Fede berodun dagerkigu emen, eta gaztetatik, Arana-Goiri, orrelaxe jarraituz bere bizitzaldi laburrean. Fedea dogu, ain zuzen be, bizialdia guritua dauskuna.

Siñismena, goi-indar baten dogu uste ona, abespelua; goitik yatorkula dana, argia, indarra, uste ona. Arek aseko gaitu, ilda gero be, bere argiaren eder-gozoan, guk orain orren bizi opa dogun zorionez, egiaz eta askatasunaz jabeturik.

Bego emen Orixe'k fedetsu kantatzen daukun au:

*Agur, fede, lurrean
nuen itsu-mutil;
zuri esker leizean
ez nun egin amil.
Itzak beude, launagan
naimen zadan bil.
Au baita Argi betiko:
Ontan nadin murgil.
(Barne-muinetan, 65 orr.).*

Labur: Siñismenari opatu eutson Arana'k bere lenengo olerki-lan au. Bizi ta errez doaz aapaldiak, ezetariko oztopo ta eragozgarri barik, aldatz-beera datorren lats meeko ur jauzilaria bai litzan. Poeta bat daukazu emen adimen-argitsu ta biotz-ondo bero. Ez darabil neurririk, ez rimarik, zauritua kanta oi dauan urretxindorraren txintak ez dauan legez.

Oar: *Dostaz*, daustaz'en orde; *jazten* da, *jatzi*, *jatsi*; *launa*, leuna; *itxomenik*, itxaropenik.

Noctis recolitur
Coena novissima,
Qua Chistus creditur
Agnum et azyma
Dedisse fratribus,
Juxta legitima
Priscis indulta patribus

Gomutian dogu
apari barrija,
Josu-Kisto'k Berak
artxu ta ogija
bere ikaslarijei
emon eutsezana,
esabeak aginduta.

Post agnum typicum,
Expletis epulis,
Corpus Dominicum
Datum discipulis,
Sic totum omnibus,
Quod totum singulis,
Ejus fatemur manibus.

Olan lagi zarra
bete ta bertatik
bere Gorputz deuna
berriei emonik,
gustijak dana jan,
bakotxak dana artu
ta jakin-erazo dausku.

Dedit fragilibus
Corporis ferculum,
Dedit et tristibus
Sanguinis poculum,
Dicens: Accipite
Quod trado vasculum,
Omnes ex eo bibite.

Makalei emonda
Gorputza jakitzat,
larrijei odola
gero edaritzat
emonik, esautsen:
«Edan egixube
neure odola dan auxe».

Sic sacrificium
Istud instituit,
Cujus officium
Committi voluit
Solis presbyteris,
Quibus sic congruit,
Ut sumant, et dent ceteris.

Kristo'k jaupa aundija
olan irazanda,
jauparijek utzik
emon egimena
eta agindu eutsen
orduntxe geroko
beste danei emoteko.

Panis angelicus
Fit panis hominum;
Dat panis caelicus
Figuris terminum:
O res mirabilis!
Manducat Dominum
Pauper, servus, et humilis.

Gotzonen Ogija
gizonena ein zan,
iduriya azkendu
egijagaz eban.
Egi ikarakorra!
Jaungoiko andija
otsein zitaleen jakija.

Te trina Deitas
unaque poscimus,
Sic nos tu visita,
Sicut te colimus:
Per tuas semitas
Duc nos quo tendimus,
Ad lucen quam inhabitas.

Bat eta Iru baten
zaran Jaungoikua,
zeu artzen zaugun lez
erdu Zeu gugana.
Gu zaliok zaindu
zure bide leundik
dozu argira zuzenik.

Bertsuok, naiz latinez naiz euskeraz, onela be idatzi daitekez:

Latinez: Sacris / solemn / is / junc / ta sint
 gau / dia, et ex / praecordi / is
 sonent / prae / cor / dia: rece / dant
 vete / ra, / no / va sint om / nia, corda
 voces et opera.

Euskeraz: Jai aundi onetan / batu bediz pozak;
 abesti deunakin / itxartu bijotzak;
 kendu gauza zarrak, / dana gaur barrija,
 egipena ta abestija.

Latin neurkeran asklepiadeu txikia deritxona gertatzen da, azkenean glikoni bat eroanik. Onela idatzita lau bertsoa aapaldiak dira, amaiari glikoniz, esan dogu, azkenduaz. Neurtzera ezkeror, bertso bakotzak gai oneik daroez: espondeu bat (luze bi), daktilo bat (luze bat eta labur bi), espondeu bi etena tartean dabela, anapesto

bat (labur bi ta luze bat) eta janbo bat (laburra ta luzea); glikonikua, barriz, espondeu bat eta daktilo bigaz egiten da. Bertso oneitan amargarren silaban doa azentu berezia, eta ganetikoak irugarrenean eta zazpigarrenean.

Ereserki au naikoa ondo oskidetuta dago, eleiz goratzarrerik geienak lez. Horazio olerkariak be bere ode-tatik bederatzi beintzat orrelaxe osotuak ditu (I, 6, 15, 24, 32; II, 12; III, 10, 16; IV, 5, 20); lenengo Liburuko seigarren au, adibidez:

Scriberis Vario / fortis et hostium
victor, Maeonii / carminis alite,
quam rem cumque ferox / navibus aut
miles et duce gesserit. [equis

Euskeraz: Vari'k, meondar kantaz / urretxindor
[danak,
zail ta etsai-garaille / goretsiko zaitu;
gudari azkorrak, zu / buru, ur-lur egiñak
mintzo giar aintzatu.

Itzultzaileak, diñoenez, *traditore* ez izateko, izkuntza biak, berea ta iñorena, jakin bear ditu. Emendik agiri yakunez, Arana'k, Jakintza ta Letrak ikasi-ala, latin be ez eban edozelan ikasi. Ortik, ba, ezin itzultzean egileari edo ereserki jatorrari ziririk sartu, ez Judas'enik egin.

Itzulpen-lana ezta egiteko erreza; olerkitan danean batez be. Olerkia itzultzea doi-doi lan barri bat egitea lez dozu, ta noizik-bein barria sortzeak baiño be adimen-neke geiago ekarri daroasku. Itzulpenak, itzulpena izango ba'da, idazlearen idazkera zelanbait erdi-erakutsi beintzat egin bear dau onako edo alako zeaztasunetan.

Arana'k berean itz bearrezkoak soil-soil darabiltza. Neurria, doiñuari itsatsi bear-ta, oso-osoan urten dau, nota bat-baten be uts-egiteke. Azken amaia, beartuena-ren esanera lotuta be, olako ase-betea izteko erakoa; ez dauko betegarririk zazpi aapaldietan. Ezta itz ez-ezagunik be, ez darabil: «irazan» eratu'ren ordezt, «azkendu» amaitu'ren ordezt, ta antzekoren batzuk bear bada.

Etzan iñoiz be, ez bere bizitzan ez geroago, argitaldu egunkari edo aldizkarietan; baiña orri batzuk egin ziran banatzeko, ta bear zanean abesteko.

* * *

«Izadia ederrez blei-blei daukagu, beti be. Ezer ori jaso nai dauanak landara urten bear. Ezker-eskoï ba-dau zer ikusi. Asko ez dira ortaz konturatzen, beste asko bai. Or koska!

«Oni zerbait, oso interesgarria, esaten dautsa arkaitz-muturrak; edo arkaitz artean beera doan erre-kasto marmalariak; edo txori kantariak, naiz odei batek, pago tanta-ia, naiz bidezidor ertze-ko lili apalak, naiz...

«Ari, oster-a, ez dautsa guzti orrek ezer adierazten. Norena da errua?

«Atsegiña geureganatzeko, orrait-iño, naiz kanpoko gauzetan, naiz idatzietan, geure zerbait bear da». (*Karmel*, 1979-3, 56 orr.).



Euzko abertzaleak, 1922-VI-24'an, Sabin Arana Goiri il zan etxe aurrean ipini eben oroi-gailu au,

XXXI

GABONA

Gabon abestiak, kantak, antxiña-antxiñatik oso zabal dabiltzanak dira gure artean. Aro alaia nunbait Gabon aldia, Kristo Belen'en jaio zanekoa, ta kantuz otsegin oi dogu geienik barruan dabilkigun alaitasunaren gozoa. Nok ez ditu entzun gure etxeetan eta kaleetan Egubarrri-kantak? Eta eleizetan «Nun da, Amandrea?», «Oi Betlemen», «Belenen sortu zaigu Jainkoa», «Aur txiki-txo ta polita» ta onakoak?

Gutziz zarrak ditugu, Bizkaia'n esaterako, kopla zarrak, artzain-kantak, Gernika'ko Marijesak, Bizenta Mogel'ek eta Jose Paulo Ulibarri'k batez be eleizetarako osotu zituenak. Eder yakozan guztiok Arana'ri, ta bera be, goi-argiz joa, ortan saiatu yakun, ots, «Gabona» deritxon au beintzat ezaguna dogu. Arana bizi zalarik etzan agertu iñun, baiña gero, aren paper artean agertu zana, Eleizalde'k argitaratu euskun «Olerkijak» poema txortan. Polito egiña da. Lenen, Ume Jesus gurtzera doaz artzaiñak, eta onein abestia dator; Andra Mariak, ondoren, bere Seme maiteari, Jainko-Semeari, abesti samur gozoa opatzen dautso. Ona biak.

1) *Artzañen abesti*

Goiko geznariak, aingeruak pozezko barria ekarri dautse an Belen inguruan ardiak zaintzen ziarduen belendar zintzoai. Aren esanera, artzain gautarrak, bako txak bere esku-erakutsiak, opariak, emoiak eta eskupekoak dakazala, Belen'go estalpera zuzentzen dira. Onela dabese:

*Jaunaren geznarijak
poz-geznea ekarri dausku:
geure larre onetan
Jaun-Semia jayo bai-yaku.*

*Guazan artzain danak
Seintxu Deuna billatuteko:
geure bildots barriak
ixan bediz Berarentzako.*

Zelan aurkitu Seintxua? Aingeruak, agertzean, esan eutsen: «Salbatzaillea jaio yatzue gaur Dabid'en urian, Kristo Jauna dana. Au izango dozue ezaugarri: ume bat oialakaz baturik eta askan etzunda aurkituko dozue».

*Ardoki baten Jauna,
esan dausku jayo yakula:
bera aulan txikituta,
geu geronek anditu gara.*

Or Belen'en estalpea. Zalapartaka, urreratu dira guztiak. Aingeruak iragarri eutsenez, Maria, Josepe ta Umetxo aurkitu dabez, estalpeko aska ondoan.

*Au da Jaun errukia,
ona ta Jaun maitagarrija!
Bere maitetasunak
eratsi dau aska batera.*

Arriturik dagoz. Eta eroiezan bildots, esne, gaztae
ta esku-erakutsiak eskiñirik, kantari diñoë:

*Jaunaren geznarija
dantzubenak zorijontsubak!
Jatsi dan Jaungoikua
dazabenak zorijondunak!*

Entzun dabe artzainak aingeruak esana, baita Jain-
koa ezagutu be. Zoriontsuak eurak! Eta Kristo, zegaitik
jatsi ete yaku zerutik lurrera? Kantari iragarten:

*Sein ori ardokitan
jayoten da, geu lakoxerik
ardijak zainduteko:
ezta inunbez artzain oberik!*

Gizaseme egin da, geuk lez ardiak zaintzeko. Ixillera
dira. Kruseluak jaso ta inguruak arakatuz, Ama dakuse
lenengo: Jesus'i «lo, lo» abesten diardu. Jesus erdi-lo.
Ixi!! Ixilik danok, iratzartu ez dedin! Abots-eutsi, au
diñoë:

*Ara or ardokija...
Entzuten da Semetxubari
Amaren lolotxuba...
Lotan dago; biar da ixilli.*

Apur baten buruan, euren bezuzak aurrean ipiñirik,
kanta-kantari dirautsoë.

*Jaungoiko-Semia, agur;
agur, agur, Jaunaren Ama;
agur, Zeu, Gixon deuna,
Neska-Amaren ezkona zara.*

Olantxe, Kristo Mesias, Andra Maria ta Josepe agurtu ondorean, pozarren doaz barriro, Jainkoa goratu ta ospatuz, euren gaberoko arazora.

2) *Miren'en abestija*

Andra Maria, Aurtxoaren seaska alboan, alai be alai. Berez datorkio, ba, biotzetik ezpanetara abesti samurra. Kanpai-durundu iduri dantzugu guk aren esan zoragarria. Amak beti abestu oi dau kumari eragitean. Baita Maria'k be.

*Ene semetxu maite-maitia.
ene Jaungoiko bixija:
ona zeure bijotz-amatxuba,
goi ta beko Jaun andija!*

Ots-otsean euskaldun bertsolariaren ederker berezia: irudimenez mendira doa, ta edurra ikusten an; baita giza-bularretan be.

*Mendi ta murubetan edur da,
leitu iparrak latsak ditu...:
gixonen bular barruban, bere,
lei-bijotza aurkitukozu.*

Illun-illunik gaba. Izar barik zerua. Gizasemeen adimenak orrelaxe, goibel, otz, zakar...

*Illun-illun gaurko gaba dago,
ezta zeruban ixarrik:
gixonen adimenak bere bai
dagoz illun-illundurik.*

Alan be, poztu bedi mundua, eguzkia urtena da-ta.
Onexek argituko ditu gizonen buruak, eta biotzak sugar-
tuko.

*Baña Ludiya poz ixan bedi
eguzkija urten dalako:
argitxeko gizonen burubak
eta bijotzak suzteko.*

Eguzki orreri Andra Maria'k emon dautsa giza-bizia;
bere sabel gurian ekarri dau bederatzi illabetez. Orain
begi aurrean dauko dizdizka, eder ta lilluragarri!

*Ene odolaren odol deuna!
Ene begijen betseña!
Ene bijotzaren bijotxuba!
Ene sabelaren seña!*

Lurbiran artzain izateko jatsi da goitik. Eta bai ga-
lantki dirautsola bera, Andra Maria be, lagun izango ya-
kola ardi-zaintzan: artxuren batek iges ba'dagio artalde-
tik, berak lagunduko dau barrero artaldera biurtu dedin.

*Artzaintxu zerutar laztantsuba:
nik, be, lagunduko zaitut
artxuren bat igesten ba-yatzu,
neuk eratorriko dautzut.*

Atzenez Amak autortza zoragarria dagitso Semeari.
Zein amak berau egiten?

*Zeure begi ederretan dakust
zeure bijotza osoro:
zeure bixitiz gustija dakust or...
Ai, ene, lo, kutuna, lo!*

Aurtxoaren bizi osoa datorkio aurrera: Nazaret'eko egoitza ixilla, ogei ta amar urtetan...; iru urteko bizitz agiria, maitasunezko zeru-irakatsiaren azia erein eta erein...; azken aparria, gurutzean josia, bere altzoan illik gurutzetik eratsita...; obiratua, berbztua, zerura igona...; Kristo'ren bizitz guztia dakus, bai, Umetxoaren begi-nietan! Olakorik ikusi ta oldoztu nai ez-ta, ots-otsean diñotsa:

Ai, ene, lo! Kutuna, lo!

Zortziko nausitan daukazuz aapaldiok. Barne-gogai ta pentsamentuz txairo; azal-jantziz be, ez gaizki. Zortziko nausiak kanturako danean batez be eskatu oi dauan tar-teko ebagia eztauanarren beti zaintzen.

Oar: *Geznari*, mandataria; *sein*, umetxo; *ardoki*, ardi-korta; *dantzubenak*, entzuten dabenak; *dazabenak*, eza-gutzen dabenak; *eratorri*, ekarri tiraka.

Izparringietan iñoiz argertu bakoa; Eleizalde'k sartu eban aren «Olerkijak» liburuan, Sabin'en paper artean aurkituta.

XXXII

DIDAR BAT ADITU DA

Au be Arana bizi zalarik argitara bakoa. Eleizalde'k dakar bere «Olerkijak» poesi-txortan, eta Arana'rena izango da naitaez, bergaratar jatorra zintzoegia bait zan arena etzanik aren olerki bilduman sartzeko.

Poesi au saio bat dogu, itxuraz. Edozer bat zentzun aurean jarri yakon eta gogorapen sotillak artu eutson beingoz adimena. Erein-min dan lurra azki-kimuaren begiak lez, olerkariak be barne-zitu joria egotzi euskun, oartu barik. Itsumustuan deiadar bat entzun dau gure mendikukutzean. Beiñola gudarako egiten zanaren antzekoa edo. Aitor'ren izkuntza da deiadar ori. Zer ete diño? «Itxartu, euzkeldunak; entzun asaben negar zinkuliñak». Zortzi bertsodun poematxoa dozu.

*Didar bat aditu da
geure mendijetan,
itxal da naigabia,
Aitor'en izketan.
«Itxartu, euzkeldunak,
—esan dau didarrak—,
itxartu, entzutera
asaben negarrak».*

Lan motzak ditugu sarri atsegintsuen. Au ez ete? Ederto datorkigu beintzat belarrira ta biotzera. Norbaitek diño ez dala Arana'rena, abandotarrak ez ebalako egundo Aitor'ik bere lanetan aitatu eta. Bego emen, alan eta guzti, aren poema artean txairo ta pertxenta, naizta azkenengo saillean.

* * *

Ona emen Arana-Goiri'ren oler-lana, errez ta apal azaldurik, zuk be, irakurle, konturatu barik lez, azal ta mamin, barrendu dagizuzan alik eta egokien maixu arek poesi-saillean egin euskuzan alegiñak. Errez ta apal diñot, eta izan be orrela osotzen saiatu naiatzu ari buruzko azterketa lerruok. Lanok, ba, sentikortasun pizkaten jabe ba'zaitut, kritika oparoa baiño baliotsuago izango yatzuz: azterketa sakonegia ez yaku beti gogoko. Liburu onen xedea be, oso-osoan beñik-bein, ez da ori izan. Kritikakariak ez dau billatu bear bere adierazpena argigarri egitea, azal samarreko azterketetan lez, berak barruan lan orreri buruz burutu dauan eritxi-epaia irakurleari emotea, irakurlea be, onek igarri barik, ortara jo dagian. Auxe da egiazko kritikakariak jadetsi bear leukena. Or untzea!

Ona, azkenik, gure Maixu gaindikoak laga euskuzan bertso-lanak. Ondo irakurri ta apur bat ausnartu ba'dituzu, zeuk dakizu nik baizen ondo, ez dirala gitxi-este-koak, txatxarrak.

Asti-uneetan landuak dira. Aldia urre zan arentzat, eta tarterik ba'eban —espetxean eta— olako lanak osotzen eralgi oi euskun. Guk, beraz, bitxi eder lez jagon ta goza bear ditugu, aren arima puskak diralako.

AURKIBIDEA

Itz bi	7
---------------	---

I ZATIA

Arana-Goiri'ren euskal lana

1.—Bizi zeaztasunak	13
2.—Euskal lana	17
3.—«Olerkijak» liburua	21
4.—Oler-sena	25
5.—Neurkera legeak	29
6.—Guretzat eredu	33

II ZATIA

Arana-Goiri'ren olerkien azterketa

Olerkien Sailkatzea	39
1.—Agur Bizkaya'ri	41
2.—Bizkaitarrak gara!	43
3.—Oraingo Bizkai-bizkarrak	49
4.—Gaurik baltzena (Arrats abestija)	53
Iru itzulpen	56
5.—Urkiola'rako bidian	57
6.—Mendiko negarra	61
Zortziko nausia	68
7.—Iñaki Deunaren Martxa	69
8.—Itxarkundia (Goiz-abestija)	77
9.—Lenago il!	81
10.—Begoña'ko Ixar zerutarrari	85

11.—Deun-Andoni'ren erantzukintzea	89
12.—Josu'ren Bijotzari Abestija	93
13.—Itxasoko Ixarrari	97
«Mugarra begiraria»	100
14.—Boga, boka!	101
15.—Goixeko Ixarra	103
16.—Ene Ama!	107
17.—Abertzale baten negarra	109
18.—Ama Goikuari	111
19.—Andera Miren Garbijari	113
20.—Ederra zara	117
21.—Ai, Mikel, Mikel, Mikel!	121
22.—Abertzale ezkunduba espetxian	123
23.—Otseña zara	127
24.—Ken!	131
25.—Euzko-Abendearen Ereserkija	133
26.—Ene Aberrija!	139
27.—Ai, Kepandon!	141
28.—Astarloa'tar Paul Kepa'ri	145
29.—Siñismena!	147
30.—Sacris solemnis	153
31.—Gabona	159
32.—Didar bat aditu da	165